


1995ko urtarrilak 13

260. zenb.

PRESS

ARRASATE


UGARTE BINGOA MITA (UDALBETXEA)  
HERRIKO PLAZA  
ARRASATE  
0 9

A scenic landscape photograph of a village with a church and a river. The church has a tall, pointed steeple. The foreground shows a river with ripples. The background consists of rolling green hills and a forested mountain range under a clear sky.

# Urkuluren inguruan

56  
Gida 95

bokatuak agente komertzialak aholkularitzak akad  
 lbateroak aitziarik animari dendak anizerki ta dea  
 parejarkak aparkalekuak ar... kidendak arhitek  
 rozte... ztegi metalikoak... indegiaak asegu  
 te ki... ak... ditorik... autoak a... osak auto eskol  
 ainu... bal... oden... ba... ak... atzailea  
 edar... dak bidai agentz... ar... uloak  
 itxite... k bizikletac... dal... oden... k buleg... ia eria  
 legus... iak dekor... a... ge... k e... egurbi  
 kond... st... ekt... ua... lel... zis... teak e  
 nple... ou... unt... era... n... h k... raista  
 erreka... t... ak... ar... ak... po... zioak  
 entri... ia... rri... ria... to kop  
 ruiuc... gal... za... n... bara  
 ar... ar... ba... as... talaku  
 k... ndak  
 g... eroak igogailuak  
 k... i... eap  
 ak izozkidegiak jana ride  
 k... o... ak jo  
 dendak koltxoidendak kor  
 giak lantegi... ak lar  
 zeriak lurrindegiak mankomunit  
 na goak marmoldegia merkatal... agentz... mertzeria  
 ne kanografia motorrak musikadendak nekazal tres  
 na kinaria notariak oihalak oila... ak ok  
 paridendak optikak osasun zerbitzuak paperdend  
 or... anak prentea eta aldizkariak publizitate agentzi  
 as... ak t  
 axiak... u... te... ia... u... te... ia... z  
 erbitzu teknikoak zinemak ziurtasun zerbitzuak za



**1995**

**Arrasate  
Aretxabaleta  
Eskoriatza  
Leintz-Gatzaga**

ARKO • ARRASATE KOMUNIKABIDEAK

**GAURTIK AURRERA**  
**IZANGO NAIZ ZURE ETXEAN**  
**Eskatu zure alea**

# Despedida laburra

**A**gur, Arantzazu!  
Urte bi iragan da honez gero lan-  
tzean behin zerbait kontatzera gon-  
bidatu ninduzunetik.

Yon Etxaide parafraseatu nuen sasoi har-  
tan, 92ko urria zen, eta esan nizun nola ez  
den ohizkoa nik neure lan propioak leitzea,  
"berriz irakurriz gero nire izerdiaren frutua  
abortu higuigarri bat iruditzen baitzait".


Halere erreparatu egin ditut gaur goizean  
orain arteko hitzak oro (eskerrak gutxi diren)  
despedidarako lagungarri izango zaizkida-  
lakoan edo. (Despedidak azken ordukoa  
behar du).

Eta hara non agertu  
zaizkidan paper artean orain  
duela zazpi mila urte par-  
titu zen karabana bat, Jay-  
yamen Rubayyat, Faulkner,  
Tere adixkidea, txikia nintze-  
neko argazkia, Athanasius Kircher,  
Aresti, Giuseppe Arroyo poeta  
eta antzerkile bikaina,  
Khuka goxoa maite duen  
Joseba ezaguna, Xabier  
Zubizarreta (tartean epigono  
nahikoa edukatu baten  
gutuna erantsita) eki-  
bokaturik bizi den  
Aitor, aspaldian geldirik  
dirauen liburu espainola,  
Tesoko Begonia Eco behin  
eta berriro, Michael Owen  
Perry, Kroll, "Literatura  
españolako" ene ikasle nerabeak eta  
zeu ere agertzen zara, 92ko abenduan  
idatzi nizun gutun batean.

Orain bazoazela diostazu eta nik, ene  
laguna, etzazula proiekturik egin etorkizu-  
nerako gomendatu nahi dizut, apika bihar  
urrun egongo baikara karabana honetatik.

Atzo, ene ikasle baten poema bat irakurri  
nuen: "Zeinen triste bizitzen den, noizpait  
hilko zarela pentsatuz gero" zioen. Baina  
hori ere planak egitea da, eta nire planik  
urrunekoa, irakurle izan ditudanei eta  
zeuri, geroarte esatea da. Ni ere banoa  
ARRASATE PRESSEko zutabe horretatik, gon-  
bitea izan baita toki hori bi urtez betetzera  
eraman izan nauena, eta anfitrioiia oheratzen  
denean ez naiz bere salan loak hartzen duen  
horietakoa.

Izango gara beste nonbait. Besterik gabe,  
**JON IÑAKI LASA**



**GATZAGAn,  
ERDI ERDIAN...**

**ZUHAITZ  
jatetxea**




**Memesa**  
79 42 22



Aldizkari honek  
Arrasateko Udalaren  
laguntza jaso du



Aldizkari honek  
Gipuzkoako Foru Aldundiaren  
laguntza jaso du



Aldizkari honek  
Eusko Jaurlaritzako Kultura eta  
Turismo Sailaren laguntza jaso du

• **ARRASATE PRESS** •

**Argitaratzailea:** ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)  
Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

**Laguntzailea:** Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Arantzazu Loidi. **Kazetariak:** Itxaro Zubillaga, Maider Egües, Maria Agirre. **Publizitatea:** Jaxone Mendizabal eta Ikerne Altube (77 08 15). **Administrazioa:** Agurtzane Gaintzarain eta Itsaso Errasti (Tfnoa: 77 08 15). **Maketazioa:** Txos Azurmendi. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Blanka Jauregi, Esther Balanzategi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrahaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Jon Iñaki Lasa, Xabier Letona, Unai Loidi, Mikel Olabe, Nekane San Miguel, Karmele Perez, Sorginak, Kopl, Daniel Gokiolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre. **Banaketaren arduraduna:** Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. Tirada: 5.500. **Legokordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).



ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azaleko argazkia: Unai Loidi.

**ZENTRO  
PSIKOPEDAGOGIKOA**

**Zerbitzuak:**

Diagnostikoa-Orientazioa

Estimulazio goiztiarra

Erreabilitazio funtzionala  
(Psikomotrizitatea eta  
hizkuntz bereziera)  
Logopedia

Laguntza terapia

Mota guztietako eskola  
arazoak, enuresia  
(Ohe bustitzea),  
eukopresia

Ignazio Zuloaga kalea, 10  
Tfnoa: 79 48 77  
ARRASATE



**Alkoholarekin arazoak  
daukazu?**


**Agian,**

**"Alkoholiko Anonimoek"  
lagundu ahal dizute!!**

**Alkoholiko  
Anonimoak**

3. areako Informazio bulegoa  
(Gipuzkoa)  
Tfnoa: 61 93 38

**ARRASATEN**



**Umeentzako  
oinetakoak  
eta  
berezitasunak**

Zerkaosteta, 15  
Tfnoa: 79 61 13

•••••  
**Autodeterminazioa  
bai. Manipulazioa,  
ez.**

Beronika Garairi:

**S**inistu nahi dut, Beronika, ez duzula ondo ulertu edo interpretatu "Zer diozu pakeaz?" galderari ARRASATE PRESSEN, abenduaren 2an, 10. orrialdean eman nion erantzuna. Bestela gezurraz eta manipulazio astunaz salatu behar zintuzket eta ez da hori ez nire gogoia, ez nire asmoa.

Onartzen dizut nire printzipio etiko-politikoekin ez ados egotea, baina ez dizut inolaz ere onartzen leporatzen didazun zama eta autodeterminazio eskubidearen ukamena.

Nire 35 azken urte hauetako Euskal Herriaren aldeko burruka eta defentsa, askotan arriskutsua, ezaguna da: Seminarioan hasi, Nuarbetik pasa, Erreterian (17 urte gogorak, batez ere hasierako hamarkada) eta beste hamar urte, orain arte behintzat, paketsuagoak, Arrasaten. Nire idatzian ere garbi dago: "Jasan ezinakin egin zaizkit beti Herri eskubideen ukatzaileak, herri-nortasunaren ezabatzaileak..." (bigarren parrafoa); autodeterminazioari ez diot mugarik jartzen: "maila asko daude: kontzertu kultural edo ekonomiko batetik hasi eta independentziaraino" (bosgarren parrafoa). Badaikit burruka luzaroko dela, horregatik, **garai bakoitzean** noraino eta zer mediorekin prozesua aurrera eraman behar dugun, euskaldunok erabaki behar dugula (ez alderdiek) eta erabakitzen dugula hauteskunde bakoitzean defendatzen nuen artikuluan: "Momentu historikoak errespetatu behar genituzke **denok**: gaurkoa (autodeterminazio maila alegia) nahikoa edo gehiegi dela pentsatzen dutenek eta nahi-

koa ez dela pentsatzen **dugunok**".

1. Bi hutsegite egin ditu tipografoak, eta beharbada horrek nahastu zaitu:

a) hirugarren parrafoaren hasieran: "Azkeneko hamarkadetako **nahikoa** ez bazen" jarri beharrean, "nahia" jarri zuen (konturatuko zinen "nahia" hitzarekin ez duela zentzurik esaldiak) eta

b) 2. zenbakian berdin: "gaurkoa nahikoa" jarri beharrean, "gaurkoa nahia" (ez du sentidurik) jarri zuen.

2. Hauteskondeez mintzatzen naizenean, gure "Autonomiaren" hauteskondeaz mintzatzen naiz, eta euskaldunon botoaz zehazki. Aldizkaria eta nire idatzia euskaldunei zuzendua baitaigo.

3. Ez nahastu, mesedez, **Jose Mari Astigarraga "Sagarraga"** (nire jaiotz-baserriaren izendura pertsona bezala identifikatzen nauena) nire parroko egin-kizunarekin, nik, kasu honetan, zure HBko lankidetasunarekin nahasten ez zaitudan bezala.

Nire eliztarrei edo Arrasateko herriari parroko bezala zuzentzen naizenean, **Jose Mari "parrokoa"** sinatzen dut beti. Artikuloaren azpian "\*parrokoa" asteriskoarekin azaltzen bada, galdetu ARRASATE PRESSI zergatia. Ez da nereaa. ARRASATE PRESSEN ohi dudana bezala, Jose Mari Astigarraga "Sagarraga" izenpetu nuen artikulua.

Irakurri ezazu berriro, eta begi garbiekin, nire artikulua. Ez naiz eztabaida idatzian sartuko, baina gogozko zait eta prest naukazu elkarriketarako. Nik ez dut inoiz —ez pertsona bezala— inor etsai bezala hartu, zu ere ez, nahiz zure ARRASATE PRESSEKO erantzun gutunak kalte injustua eta haundia ezarri nire izen-iza-

nari eta nire parroko eginkizunari. Nire telefonoak: 791405 - 791320. Zure zai.

**JOSE MARI ASTIGARRAGA  
"SAGARRAGA"**

•••••  
**San Felipe  
Apostolen oharra**

**S**an Felipe Apostol Elkartelaguntzarako Elkartearen izenaz eta eskelelen inprimakiarekin joan den abenduaren 28an egindako erabilpen errespetu gabea dela eta, erakunde honen Zuzendaritza Batzordeak honakoa adierazi nahi du:

Erakunde honek ez duela inolako zerikusirik erabilpen horrekin eta era honetako portaerak guztiz arbuia-garriztat jotzen dituela.

**ZUZENDARITZA BATZORDEAK**

•••••  
**Zubillagako  
erromeria**

Barkamena eskatu nahi dizuet erromerian parte hartu zenutenei arazo ezberdinegatik bideoa hain beranduz erakusteagatik.

Benetan eskerrikasko lan hau burutzeko eskaini zenuen daten laguntza desinteresatuarengatik. Besterik gabe, goza ezazue pelikulatxo ATBn datorren astean.

Laguntzaile izan genuen Harkaitz Aperribairen omenez.

**AMAIA MARTIARTU**

**Zuzenketa**

Abenduaren 23ko aldizkarian Rufina Olasagastik idatzitako artikuluan zentzua aldatzen duen akats bat egin genuen: testuaren amaieran "aztertutako jendearen duen adimena edo "zuten" bizimodurako egokitzapena" jartzen duen lekuan, "zurien bizimodurako egokitzapena" jarri behar zuen. Barka hankasartzea.

# Ikusten duzu ETBko "Goenkale"?



**Ainhoa  
Zenigaonandia  
Ikasle  
(11 urte)**

Bai, asteen lau aldiz, astelehena ezin izaten dut eta. Gehien gustatzen zaidan pertsonaia Joxe Mari da: barregura handia ematen dit.



**Unai Aranguren  
Ikaslea  
(12 urte)**

Bai, batzutan ikusten dut. Istorioa polita da arazo asko daudelako. Karlos eta "Txapas" pertsonaiak ditut gogokoak.



**Nagore Llodio  
Ikaslea  
(14 urte)**

Etxean egunero ikusten dugu. Pertsonaien artean Karlos aukeratuko nuke, nahiko guapoa da eta.




**Carlos Ginart  
Jubilatua  
(74 urte)**

Bai, badakit zer den "Goenkale", baina nik ez dut ikusten.



**Maribi Zurutuza  
Langabetua  
(33 urte)**

Batzutan, egunero ezin izaten dut eta. Eguneroko bizitzako gaiak ikutzen dituztelako gustatzen zait. Joxe Mari gustatzen zait gehien.



**Pello Sologaitza  
Langilea  
(21 urte)**

Ahal izanez gero, egunero ikusten dut. Hemengoa izanda identifikatuta sentitzen naiz. Duda barik, "Txapas" dut gogokoak.



**Mari Tere  
Uribetxebarria  
Etxekoandrea  
(52 urte)**

Etxean ikusten dutenez batzutan bai, baina ez da nire gustokoa. Ez dakit zergatik, baina ez zait larregi gustatzen.



**Markel Elorza  
Ikaslea  
(13 urte)**

Asko gustatzen zait eta egunero ikusten dut. Oso guapa denez, Ane da gehien gustatzen zaidan pertsonaia.

PRESS  
**ARRASATE**


Harpidetzak:  
77 08 15

**MARGOAK  
JUANMA**

Margoak, paperak,  
gotelea e.a.

Agerre kalea, 5 3. ezk.  
Tfnoa: 79 69 17

Elektroinjekzio  
Zerbitzua



**ARRASATE KONPONKETAK**

Zaldispe kalea, 5 Tfnoa: 79 95 41  
ARRASATE

**BEHARREZKO TELEFONOAK**

**Eritetxeak**  
 Arrasateko Eskualde-Ospit. ....79 53 00  
 Igalatorioa .....79 05 00  
 Santa Agedako Ospitalea  
 (gizonak) .....79 39 00  
 (emakumeak) .....79 44 11  
 Buru osasunerako zentrua .....79 90 11

**Gurutze gorria**  
 Bergara .....76 55 76

**DYA**  
 Antzuola .....76 62 91

Anbulatorioak  
 Arrasate (Larrialdiak) .....79 13 57  
 (Txanda hartzeko) .....77 03 46  
 77 07 21  
 Oñati .....78 08 52  
 Eskoriatza .....79 98 58  
 Aretxabaleta .....79 74 58  
 Aramaio .....(945) 45 51 16

**Anbulantziak**  
 Gipuzkoako ambulantiak .....45 87 44

**Udalitzaingoa**  
 Oñati .....78 04 11  
 Bergara .....76 14 69  
 Arrasate .....79 14 39  
 Aretxabaleta .....79 10 52  
 Eskoriatza .....79 03 22

**Ertzaintza**  
 Arrasate .....79 71 99

**Suhiltzaileak**  
 Udal taldea .....79 09 00  
 Udal taldeko suhiltzaile burua .....79 20 72  
 Zubillagako Eskualde-Parkea .....78 28 00

**Matxurak**  
 Urak (udal zerbitzua) .....79 09 00  
 Elektrizitatea (Iberduero) .....12 01 62  
 Gasas .....900 40 05 23  
 79 78 44  
 79 76 78

**Garraioak**  
 Taxiak .....79 12 22  
 P.E.S.A. ....79 14 19

**Hirugarren adinekoentzako zentruak**  
 Iturbide Egoitza .....79 72 11  
 Abaroa jubilatuen egoitza .....79 81 57

**Kontsumitzailearentzako informazioa**  
 Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak .....79 87 77  
 KIUB-OMIC .....79 51 55

**Monterrongo liburutegia**  
 Monterron .....77 01 05

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Ostirala 13**  
 Egunez eta gauez: Matxiategi. Bergara.  
 Gaueko 10.00ak arte: Irizar. Erguin.

**Larunbata 14**  
 Egunez eta gauez: Mozos. Bergara.  
 Gaueko 10.00ak arte: Amezua, Sta. Marina.

**Igandea 15**  
 Egunez eta gauez: Mozos. Bergara.  
 Gaueko 10.00ak arte: Ruiz. Maala.

**Astelehena 16**  
 Egunez eta gauez: orales. San Andres.

**Asteartea 17**  
 Egunez eta gauez: Azkoaga. Ferrerías.

**Asteazkena 18**  
 Egunez eta gauez: Español. Iturriotz.

**Osteguna 19**  
 Egunez eta gauez: Corcuera. Musakola.

**13 OSTIRALA**

**ZINEA**  
 "Peligro inminente". 7etan eta 10etan.

**HIRUGARREN ADINERAKO GIMNASIA**

Urtarrilaren 25ean Hirugarren Adineko mantentze gimnasiako klaseak ematen hasiko dira Arrasateko Musakolako kiroldegian. Egunak, asteazken eta ostiraletan izango dira 10.45etik 11.45era. Prezioa, kiroldegiko bazkideentzat 1.300 izango da eta bazkide ez direnentzat 1.700 pta. Aipatu beharra dago Udaletxeak subentzationatzeko aukera badagoela. Izena emateko Musakolako kiroldegira jo behar duzue edo 790427 zenbakira dei egin.

**AEKko SARIA**

AEKren urte osorako soldata baten zozketaren zenbaki saritua 54.656 izan da. ONCeren abenduaren 21eko zenbaki saritua.

**UDAL EUSKALTEGIA**

Urtariletik martxora arte, eskolako irakasleentzat erreziklari ikastaroa antolatu du Udal Euskaltegiak. Euskaltzaindiak irailean egindako jardunaldietan jorratu zituen gaiak aztertuko dira. Ikastaroan 6 saio jasoko dira bakoitza bi ordukoa, 12 orduko ikastaldia. Lehengo ekinaldia Hezibiden kokatzen diren zentruetara zuzenduta dago baina asmoa publikoari eskaintzea da aurreantzean.

**ERAKUSKETA**

**Santamas 94 argazki lehiaketaren erakusketa Harresi aretoan, urtarrilaren 13tik 22ra. Ordutegia: Egunero 6etatik 8etara eta larunbat eta jaiegunetan 12etatik 2etara eta 6etatik 8ak arte.**

**14 LARUNBATA**

**ZINEA**  
 "Peligro inminente". 5etan, 7,30etan eta 10etan.

**DAVID ARZAMENDIRI OMENALDIA**

David Arzamendiri omenaldia, San Juan Bataiatzailearen parrokiaren arratsaldeko 8etan. Julian Sagastak organo kontzertua eskainiko du.

**BERTSO JARRIEN KANTALDIA**

Bertsokantari Xabier Euskitze eta Mikel Mendizabal. Pianoan Alberto Iriondo eta Haritz dantza taldearen saioa. Gaueko 10.30etan Elgoibarko antzokian.

**15 IGANDEA**

**ZINEA**  
 "Peligro inminente". 5etan, 7,30etan eta 10etan.

**ZIKLO KROSSA ARETXABALETAN**

Promozioko Ziklo-kross txapelketa kadete eta jubenil mailan Aretxabaletan. Kadeteen lasterketa 11.15etan hasiko da. Jubenilena 12etan. Ibilbidea: Santutxo, Arbizelai eta Errotetxeko zelaiak.

**KONTZERTUA**

"Joven Orquesta Nacional de España"ren kontzertua Amaia antzokian arratsaldeko 7etan. Sarrera: bazkideek 500 pta, bazkide ez direnentzat 1.500 pta. Arrasate Musikalek antolatuta.

**AL-ANDALUS**

Al-Andalus kultur elkartereko bazkideen batzar orokorra Monterronen. Lehen deialdia goizeko 10etan, bigarrena 10.30etan. Batzar ostean luntxa egongo da.

**KIKLO-KROSSAN ATXABALTAN**

Kiklo-kross promozioko lasterketa Aretxabaletan kadete eta jubenil mailan. Goizeko 11.15etatik aurrera kadeteen lasterketa eta jarraian jubenilena.




**16 ASTELEHENA****ZINEA**

"Peligro inminente". 7etan eta 9,30etan.

**MINTEGIA: INDUSTRIA ETA INGURUGIROA**

Gaia: "Euskal industriara aplikatu daitezkeen konponbide tekniko eraginkorrak", goizeko 9.30etatik orubata arte, San Viator ikastolan. San Viator ikastolak antolatuta.

**III. BERTSO PAPER LEHIAKETA**

**Bizkaiko bertsolari elkarteak "Bertso jarri" en arloak bertso-gintzan duen garrantziaz eta Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntasunarekin III. bertso paper lehiaketa antolatu du. Lehiaketak hiru maila izango ditu: haurrak (15 urte artekoak); gazteak (25 urte bitartekoak) eta helduak (25 urtetik gorakoak). Haurren maila Bizkaira mugatua da; beste bi mailak Euskal Herri osora zuzenduak dira. Partaide bakoitzak gehienez bi bertso sorta aurkez ditzake. Lanak aurkezteko azken eguna 1995eko urtarrilaren 31 izango da.**

**IKASTAROAK**

Famili eta Gizarte Heziketarako zentruak hainbat ikastaro antolatu du datorren astetik aurrera. "Lanpostua bilatzeko tekniken ikastaroa"; astelehen eta asteazkentan goizeko 9.30etatik aurrera, 40 ordu. "Emakume eta literatura"; astelehenetan arratsaldeko 6.30etan, 30 orduko ikastaroa. "Sexualitate jardunaldiak"; asteartetan 6.30etatik aurrera, 14 ordu. "Bustina: hasierako ikastaroa"; astelehenetan goizeko 9.30etan edo arratsaldeko 6.30etan, 30 ordu.

**17 ASTEARTEA****ZINEA**

"Peligro inminente". 7etan eta 9,30etan.

**MINTEGIA: INDUSTRIA ETA INGURUGIROA**

Jubilatuentzat kultur programaren aurkezpena egingo da, arratsaldeko 4.30etan Montteronen.

**INGURUGIRO SAILA ENPRESAN**

Gaia: "Ingurugiro mailan gaur egungo euskal enpresaren beharrak Europako merkatu bakarraren aurrean", goizeko 9.30etatik orubata arte. San Viator ikastolak antolatuta.

**18 ASTEAZKENA****HITZALDI-BILERA**

Gaia: "Pertsona nagusiak Euskal Herrian. Gaur egungo eta etorkizuneko perspektiba". Hizlaria Ana Bujanda, I.C.T.Eko arduraduna. Montteronen arratsaldeko 4.30etan. Arrasateko jubilatuen etxeek antolatuta.

**MINTEGIA: INDUSTRIA ETA INGURUGIROA**

Gaia: "Euskal enpresa Europako burugo eta ingurugiro legeriaren aurrean", goizeko 9.30etatik 12.30etara. San Viator ikastolak antolatuta.

**ESKULAN TAILERRA**

Eskularen tailerra: telan pintatzea eta pintura rustikoa erakutsiko da. 30 orduko ikastaroa asteazkenero, goizeko 9.30etatik aurrera. Famili eta Gizarte Heziketarako zentruak antolatuta.

**19 OSTEGUNA****ZINEA**

"Timecop". 7etan eta 9,30etan.

**BATZAR OROKORRA**

San Viator ikastolak ohiko batzarra eta ezohikoa egingo ditu. Lehen deialdia arratsaldeko 6.15etan eta bigarrena 6.30etan.

**MINTEGIA: INDUSTRIA ETA INGURUGIROA**


Gaia: "Zuzpertzte ekonomikoa eta ingurugiroaren zuzpertztea", goizeko 9.30etatik 12.30etara. San Viator ikastolak antolatuta Industria eta Ingurugiroari buruzko Mintegi bereziaren barruan.

**INAUGURAZIOA**

UGTren egoitza berriaren inaugurazioa. Arratsaldeko 6.30etan. Candido Mendez, UGTko estatuko idazkaria izango da ekitaldian. Egoitza berria Garibai etorbidean 6. zenbakian dago.

**IKASTAROAK**

Maiatzaren bukaera arte eskulan ikastaroa, asteartero (rustikoa, bandala, estainoa, tarazea). Emalea: Mila Akizu. Apirila arte Reflexoterapia ikastaroa, asteazkenetan. Emalea: Jose Luis Armendia. Ikastarobiak AEDn izango dira arratsaldeko 3.30etan. EKIN emakume taldeak antolatuta

**ERAKUSKETA**

"Made in Arrasate: Museo industrialak sortzeko bidean" erakusketaren azken eguna urtarrilaren 22an. Orduetia: egunero 6etatik 8etara eta larunbata eta jaiegunetan 12etatik 2etara eta arratsaldez 6etatik 8etara.

“Abenduaren 28an komunikabide guztiak ikusirik, ez nuen bat ere aurkitu egun horren ospakizunean babesturik inori publikoki burla egiterik, Arrasaten gure parroko jaunarekin gertatu den bezala.

Hori ez da inozentada. Ganberrada hutsa da, eta hala bada ganberroen gozamerako baino ez, edo ez talitako mendekua bestela.

“Broma” hutsa izan bada, asmamen hori gauza baliagarriagoetarako erabiltzea eskatuko nizuke. Ez egin gauzak izkutuan. Zeuen buruak ezagutzera eman ez Arrasateko txikitoak izatera iritsiko zarete behar bada.

Bigarren kasua izan bada... ‘euren ekintzetatik ezagutuko dituztela esatea’ baino ez”.

**Dorita Murguiak** 95-1-2an **EL DIARIO VASCO**

“Duela 7 urte, oster, etxeko guztiok ez dugu inoiz (gabonetan) bat egin mahaiaren inguruan. Gure kroketa, langostino, bildots eta abarren artean mokadurik ederrena falta zaigu: anaia. Azken zazpi urtetan Espainiako gartzela desberdinetan iragan ditu etxeko sutondoaren inguruan igaro beharreko egun horiek. (...)

Bai, betikoekin, eta betikoak izango ez diren esperantzaz. Kazetaria naiz eta kazetaritzan, nahiz eta berau izkututzen saiatu, errealitateak agintzen du. Baina hau ez da kazetariaren idazkia, aita, ama, anaia edo, pentsatzen dut, Joseba Goikoetxearen emazteak idatz lezakeenaren idazkia da. Orain arte behintzat. (...)

Niri idazteagatik ordaintzen didate, politikooi, ordea, herritarren arazoak konpon ditzazuen ordaintzen dizuegu. Konpondu itzazue, beraz! Txetxenia, Chiapas, Irlanda eta aberrekoak elkarriketaren bidez konpondu beharrekoak badira, Euskal Herrikoa ere bai. (...)

Azkenengo bisitan, anaiak zera esan zidan: ‘nahiago dut orain beste hamar urte espetxean pasatu, hemendik urte batzuetarako nere semea espetxean ikustea baino’. Eta arrazoi du, zauria ondo itxi ezik berriro zornatzen da”.


**Xabier Letonak** 95-1-8

**ARGIA**

## Zein da jubilatutako etxeek antolatutako programaren helburua?

**N**orberaren garapen pertsonala bultzatu, gizartean parte hartzea suspertu eta nagusiok aisialdia modu kreatiboan bizi izateko helburuaz antolatutako programa. Aurten goa gainera, era horretan antolatutako lehena izango da. Joan den urtean, Uribarriko egoitzan zenbait hitzaldi antolatu genuen eta arrakasta handia izan zuten, oraingoan eskaintza sorta zabaltzea erabaki dugu. Guzti horren motorea, Uribarriko egoitza izan da baina herriko beste jubilatutako etxeek ere parte hartu dute antolakuntzan eta batez ere, egutegia finkatzerako orduan. Bestalde, I.C.T.E institutoko laguntasun teknikoa eman digu, egitaraua antolatzen lagunduz. Udalak, oster, horrelako ekintzetarako zuzendua dagoen dirulaguntza, 400.000 pta.

Kultur programa datorren asteazkenean hasiko da eta matxora arte iraungo du. Tarte horretan denetik izango da: gai desberdinen inguruko hitzaldiak, antzerkia, txangoa... Programari jubilatutako etxeekiko lotura kendu nahiez, gainera, Monterronen egingo dira ekintza gehienak. Esan beharrik ere ez dago Arrasateko edadetu guztientzat direla ihardunaldiok eta bide batez, egoitzetara hurbiltzeko ohiturarik ez duten hainbat jubilatutako animatu nahi nituzke parte hartzera. Jubilatutako etxeetara jubilatuen %60a joaten da baina gainontzekoak etxean geratzen dira, bakardadean asko. Horieta-ko batzuk erakartzeak asko poztuko gintuzke; hitzaldietara 40 edo 50 lagun hurbilduta, gure ustez esperientziak arrakasta izango lukeela.



**Antxon Garate**  
Uribarri egoitzako  
bazkidea



## LANPOSTUAK

Arrasateko Udalak **BI LIBURUZAIN LAGUNTZAILE** kontratatu nahi ditu urte t'erdirako.

- Hutesprozesua aginduko duten oinarriak Udaletxean jaso daitezke.
- Instantziak aurkezteko epea **urtarrilaren 25ean** bukatuko da.
- Hautaketa frogak **otsailaren 14an, goizeko 10etan** hasita egingo dira udal liburutegian (Monterron Jauregian).

Arrasaten, 1995eko urtarrilaren 9a  
Alkatea



**ONCE saria**

ONCEk behintzat utzi zuen saririk Arrasaten. Urtarrilaren 3ko sarian, 50 milioi banatu zituen Erguin auzoko hainbat gazte eta beste arrasatear batzuen artean. Saria ekarri zuen zenbakia Juan Jose Ruizek saldu zuen. Batzuk Ruizen tabernan, Erguingo Bar Azkenan, erosi zuten kupoia eta beste batzuk, ostera, kalean.

**Emanaldia eta omenaldia**

Abenduaren 31n Arrasate Musikaleko bandak lehen kontzertua eman zuen. Euria ari zuen arren, eguerdian bandako 60 partaideek kalejirari ekin zioten eta ordu bata t´erdietan Arzamendi, Munarriz, Sorozabal eta Ansorenaren piezak jo zituzten herriko plazan. Emanaldian aipamen berezia egin zitzairen, Juanito Arzamendiri, Arrasateko udal bandako zuzendaria izan zenari, Justo Munarrizen izenean bere alabari (Munarriz ere bandako zuzendaria izan zen) eta Demetrio Iriarteri, Aretxabaletako bandako zuzendaria izan zenari. Kalejiraren hasieran gainera, geldialditxo egin zuten San Frantzisko elizaren parean, Fray Rufino herrira etorri zela 50 urte betetzen zirela eta. Fray Rufinok opariak jaso zituen, bandaren, SUDCen, Udalaren eta beste lagun batzuen izenean.



**Sutea Ospital Zaharrean**

Astearte arratsaldean sute txiki bat izan zen Ospital Zaharrean, ARKOren eta Margo Taldearen egoitzan. Sua transformadoreak hartu zuen, larregi berotu ondoren. Zorionez, bizkor itzaltzea lortu eta ez zen ezbeharririk gertatu. Sua itzaltzera Zubillagako suhiltzaileak etorri zirenez, ikusmira handia sortu zuen erdikaldeko bizilagunen artean.



**Ongi etorria**

Asteazken arratsaldean eta gauean ongi etorria egin zitzairen Ruandaren alde Bergaratik abiatu ziren bost lagunei eta lerei tiraka ibili diren 24 txakurrei. Hilabeteko espedizio horrek, Euskal Herri guztia zeharkatu du eta denbora tarte horretan 4 milioi inguru batu dituzte, 10 batzea aurrikusita zuten arren. Ongi etorri ekitaldia egin ondoren, espedizioko partaideek hitzaldia eman zuten abenturaren gorabeherak azaltzeko.

**Txikilandiak Arrakasta**

Arrakastatsua izan da aurtengo Txikilandia, Musakolako Kiroldegian Txatxilipurdik jarri zuen jolas parkea. Urtarrilaren 2tik 5era bitartean, Arrasateko eta inguruko gaztetxo asko hurbildu zen dibertsio-desberdinetan eta tailerretan parte hartzera. Orokorrean denborapasa guztiek izan zuten arrakasta, baina batez ere karaokea izan zen gustokoena. Errege bixamonean, bestalde, Takolo, Pirrux eta Porrotx pailazoaren emanaldia izan zen Amaia antzokian. Asteazkenean, berriz, lehen hezkuntzako gaztetxoek Gorakada taldearen "Nahikoa" antzezlanak ikusteko aukera izan zuten Amaia antzokian.

**JAIOTZAK**

- Ainitz Etxabe Guezmes. Urtarrilaren 21ean.
- Maitane Ramos Fernandez. 27an.
- Tatiana Rodrigues Amaral. 25ean.
- Gorka Sagasta Franco. 28an.
- Martin Etxabe Barrutia. 31an.
- Alaine Olabarria Bedia. 3an.

**EZKONTZAK**

- Jon Andoni Galdos Goikoe-txea eta Maria Esther Balanzategi Arregi. 7an. Zibilez.


**HILDAKOAK**

- Felisa Ibarrondo Otaduy. 71 urte. 26an.
- Begoña Iriondo Garitagoitia. 78 urte. 1ean.
- Felisa Heriz Aranburu. 85 urte. 2an.
- Alberto Idigoras Zubia. 76 urte. 1ean.
- Francisca San Miguel Oyanguren. 59 urte. 3an.

  
**ileapaindegia**  
 Tfnoa: 79 37 88  
 ARRASATE

comercial  
 san juan  
 Garibai, 12  
 Tfnoa: 79 13 05

hikein  
 MARKO-JARTZEAK  
 Zerkaosteta, 4  
 Tfnoa: 79 13 84



\* JOSE LUIS ERAÑA

## Ariketa fisikoa eta kirola

**Urte** berri honen hasieran, gure gorputzarentzat egokiegia ez diren jan ohiturak agerian agertu diren momentu honetan, kirolari edo egokiago esanez, ekintza fisikoari buruzko gogoeta bat egitea gustatuko litzaidake.

Hasteko, kirola eta ekintza fisikoa banatzea gustatuko litzaidake. Ekintza fisikoa kontzeptu orokorra da; kirola, aldiz, ekintza fisiko hori bere bukaerako ondorioetara eramatean sortzen da. Ekintza fisikoa bakoitzaren gorputzari egokitu daiteke kirolean, aldiz, gorputza kirolari egokitu behar zaio. Beraz argi dago onurak askoz handiagoak izan ditzakela ekintza fisikoak kirolak baino.

Bestalde, eta zalantzarik gabe, guztiak nahi dugu gorputz osasuntsua izatea, hori baita zoriontsu bizi ahal

izateko baldintzetariko bat, eta hori lortzeko dauden bide guztien artean entzunea eta onartuena ekintza fisikoa egitea da, modu jarrai, lasai eta razional batean eginda, noski.

Ariketa fisikoari buruz zerbait irakurtzen dugun bakoitzean burura datorkigu bertan esandakoa egiteko nahia, eta askotan hasi ere

•••••

**“Aktibitate fisikoaren helburua gustora aritzea, gozagarri izatea da eta ez aspergarri eta gogorra.”**

egiten gara programaketa bat aurrera eramaten, baina zoritxarrez, gehienetan utzi egiten dugu kostantzia faltagatik. Horregatik, aktibitate fisikoari beste arrazoi edo helburu batzuk bilatu behar dizkiogu osasunaz gain, hala nola, gustora aritzea, gozagarria izatea eta ez aspergarri eta gogorra. Guzti hau lortzeko giro aproposa lortzea ezinbestekoa da, giro horrek dakarren nolabaiteko “loturak” ekintza fisikoaren zutabe nagusienetarikoen baten, konstantziaren, atarian jartzen baikaitu.

Horrela ba, ez du ezertarako balio, edo zehazkiago esateko, kaltegarria litzateke, ekintza fisiko gogorak egitea epe labur batzuetan. Ekintza fisikoaren onurak bizkortasuna, poztasuna, lanerako gaitasun handiagoa, neke fisiko eta psikikoen gutxitzea, oinarritzko gaitasun fisikoen (erresistentzia, abiadura, indarra edo flexibilitatea) lantzea, koordinazioaren hobetzea, gorputz osasuntsua eta propozionala izatea... ekintzen jarraipenean oinarritzen dira.

Horregatik, ez ezazu urte berri honetan ekintza fisikoa alde batera utzi eta animatu zaitez zertxobait egitera, zure gorputzak eskertuko baitzitu laster, bai barrutik eta baita kanpotik ere.

**MANTENTZE SOINKETAKO MONITOREA**

## USTEAK USTE

### ZOTINA ETA LIMOIA

**Azken aste hauetan politika munduan azaltzen ari diren berriek zeharo aiduru naukate. Ez, ez dut esango horrelakorik espero ez nuenik, baina bai ezustean harrapatu berri horiek hartu duten bolumenak. Ustekoz inplikatu baten izena argitara eman bezain pronto, bigarren izen bat ateratzen digute, eta gero beste bat. Bata bestearen jarraian. Zotina dirudite. Politika munduan eta politikarien artean sortutako zotina. Pertsona eta politikari horien aurka, berriz, hainbat kazetariren lana, egia osoa aurkitzeko asmoz sekula baino gehiago ahalegintzen direlarik. Eta ez kazetariak bakarrik, lan horretan politikari batzuk ere ikusten baitira. Errealitate zikin hori noraino hel litekeen jakiteko gogoz omen dabilta... Salaketa zorrotzak, kritika garratzak. Limoiren garratzasuna gogorazten didate. Lastima limoi horrek balio ez izatea zotin hori sendatzeko, jaio berrienak sendatzen dituen bezala. Auskalo noraino heltzen den GALen trama horren ilada. Herriaren ezintasuna edo inpotentzia da gehien kezkatzen nauena.**

**JOSE RAMON ELORTZA**

**CE ERRASTI KRISTALDEGIA**

**Plastiko eta burdinazko hodiak  
beirina eta kristalak  
akzesorioak**

Olarte kalea, 47 behea Tfnoak: 79 22 55 79 14 25

**GORKA**  
**ILEAPAINDEGIA**  
**SOLARIUMA**

Ferrerias, 35 ARRASATE  
Tfnoa: 77 13 78

**“PAL”**

**burdindegia,  
brikolage  
eta tresneria**

Uribarri etorbidea 3,  
Tfnoa: 79 31 99



Irailaren 15ean hasi ziren hauteskundeak eta abenduaren 31n bukatuko dira.

## Aukeratuta daude ordezkari sindikal gehienak

Hauteskunde sindikalak hasi zirenetik lau hilabete pasa diren arren, aukeratu behar diren ordezkarietatik %90 aukeratuta daude dagoeneko. Hauteskundeak egiteko epea abenduaren 31n bukatuko da baina eskualdeko lantegi gehienetan aukeraketa egina dago, Aranzabal, Gamei, Zerrajera, Azbe Zubia eta Cerrajera Valle Leniz eta beste lantegi batzuetan izan ezik. Eskualde mailan bost sindikatu aurkeztu dira hauteskunderetan: ELA, LAB, CCOO, UGT eta ESK.

Orain arte ELA izan da Arrasate eta eskualdean ordezkari gehien lortu duen sindikatu: herrian 55 eta eskualdean 205. Sindikatu horretako arduradunen ustez, 90eko datuez konparatuta langile kopurua jeitsi egin den arren, igoera izan dute eta hori oso garrantzitsua da. Era berean, horrek erresponzabilitate handiagoa eskatzen dietela adierazi digute. ELAkoen esanetan, estatuko sindikatuak behera egin dutenez eta abertzaleek gora, garbi ageri da langileek zelako sindikalgintza nahi duten.

LABeko arduradunen berbetan ere sindikatu abertzaleen igoera nabarmena izan da eta batez ere eurek izandakoa, Arrasaten 29

eta eskualdean 123 ordezkari lortu dituzte eta. LABen ustez, lau urtetan egindako lanaren fruituak batzen ari dira eta gainera, enpresa txikietan ezezik handietan ere emaitza onak izan dituzte.

CC.OOek, oster, hauteskundeak bukatu ez diren arren ordezkari gutxiago lortzea gerta daitekeela adierazi digute. Hala ere, ordezkari lortu duten hainbat lantegitan oraindik hauteskundeak egin ez direnez, balorazioa bukaeran egitea komeni dela zehaztu dute.

UGTk, bestalde, LAB eta ELA sindikatuen jokaera ez dela egokia izan uste du. Hauteskundeak egiteko nahikoa denbora izan arren, aurre-abisuak oso bizkor, UGTk jakin gabe sartu zituztela azaldu dute. Arrasaten 30en bat ordezkari lortu dituztela baina oraindik ordezkari handia duten enpresetan ez dela prozesua hasi adierazi digute.

Azkenik, ESKk balorazio positiboa egin du, orain dela lau urte Arrasaten aurkeztu ez zirenez eta oraingoz behintzat 3 ordezkari lortu dituztenez. Udaletxean eta Guposten aurkeztu ditu ordezkariak ESKk eta baliteke Zerrajeran ere aurkeztea

### UGTk egoitza berria

Datorren ostegunean, UGTren egoitza berria inauguratuko dute. Egoitza hori, Garibai kaleko 6. zenbakian dago eta 150 m<sup>2</sup> izango ditu. Inaugurazio ekitaldia, arratsaldeko 6.30etan hasiko da eta ekitaldian Cándido Méndez, UGTko estatu mailako idazkaria izango da besteak beste.

Orain arte, PSE-EEren egoitzaren ondoan izan da UGTren egoitza eta gobernatzea eta sindikalismoan aritzea gauza desberdinak direla uste dutelako erabaki dute egoitzak banatzea. Aldaketa horrekin, jendea UGTren egoitzara erreparatu barik hurbilduko dela eta aholkularitza hobea eskaintzea espero dute arduradunek.

### 4.000 toneladako prentsa


4.000 toneladako prentsa mekanikoa, inoiz estatu espainiarrean egin den handiena, salduko dio Fagor Arrasate Txinako enpresa bati. Zapalgailu hori, gutxi gorabehera 500 milioi pezetatan erosiko du automatizazioaren alorrean lan egiten duen enpresa txinatarrek. Era horretako tresnek diseinu, fabrikazio eta erabilpen maila handiak eskatzen dituzte eta mundu mailan, Fagor Arrasate da horrelakorik egin dezakeen enpresa bakarrenetarikoa.

**ITSASKI**

ARRANDEGIA

Arrain freskoa  
eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 98 94



**IBABE  
GARAJEA**

**MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA**  
Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE

**BASABE  
JATETXEA**

Menu eta afariak  
Boda eta banketeak

Tfnoa: 79 91 84  
ARETXABAETA



Bi lantegien bidegarratasuna aztertzen ari da Zubizarreta kontsultora.

## UCEM ARRASATE S.A.L. sortu da

Pezeta baten truke bi lantegien orubeak eta akzioak UCEM Korporazioak langileei saldu ondoren, Zerrajera eta Transformados-en gestioa langileen esku geratu da. Abenduaren 26an Iñaki Olaizola, Korporazioako administraria, Zubizarreta kontsultorako ordezkari bat eta akzionistak izango diren lau langile, bildu ziren Arrasateko notaritzan salmenta egiaztatzen zuen agiria sinatzeko. Era horretan, 174 langileek eramango dute bi enpresen ardura eta horretarako, UCEM ARRASATE S.A.L. (sozietate anonimo laboral) delakoa eratu dute.

Pausu garrantzitsu hori eman arren, oraindik geratzen da zer konpondua. Haziendarekin eta Gizarte Segurantzarekin, adibidez, zorraren arazoa konpondu

behar da. 1.000 milioi ingurukoa da zorra eta horrekin aurrera irtetea ezinezkoa da langileen ustez. Hala ere, baliteke oraingoz Haziendak eta Gizarte Segurantzak zorra barkatzea. Bulegoen auziari, osterara, bilatu diote irtenbiderik. Bulegoak saldu egingo ditu Korporazioak, Udaletxearekin seguruenik, eta salmenta horretatik 40 milioi jasoko dute langileek. Beste erdia gutxi gorabehera, Korporazioaren esku geratuko da.

Bitartean, Zubizarreta Kontsultora, lantegiak aurrera ateratzeaz arduratuko dena, bidegarratasun plana aztertzen ari da eta hile bukaerako zehaztua izango duela espero da. Langabeziaren errotazioa eginez, erakundeentz laguntzaz, eta produktu berriak eginez aurrera irtengo dutela uste dute sindikatuek.

### Tren geltokia konpontzen

Orain dela aste batzuk, estazio zaharra konpontzen hasi ziren eta, obra horietarako 22.394.000 pta luzatzea erabaki zen asteleheneko gobernu batzordean. Obrak bukatutakoan INEMk bulegoak bertan finkatuko dituzenez, erakunde horrek 27 milioi inguru jarriko ditu, batez ere pertsonal gastuei aurre egiteko.

Baina nahiz eta obrak hasi, akabera nork emango duen kolokan dago. Langileei martxoaren 31n bukatuko zaie kontratua eta ordurako, eraikinaren egitura eta gainkaldea bakarrik egongo dira bukatuta. Barruko obrak nork egingo dituen zehaztu beharko dute orain Udalak eta INEMk.

### Epaiketak ordaindu

Arrasateko 21 intsumisoei egindako epaiketek eragin duten gastua Udaletxeak ordainduko du. 966.000 pezetatakoa izan da abokatuek aurkeztu duten gastua. Intsumisoei laguntza hori ematea plenoan onartuta zegoen.



*Elena*

Bizkaia Etorbidea, 1 etxebaia ARRASATE Tfnoa: 77 14 24

 **CIM**  
HIZKUNTZAK-IDIOMAS

**APTITUD (EOI) eta PROFICIENCY (CAMBRIDGE)**

**Azterketak prestatzeko ikastaroak  
Orain GOIZETAN ere bai**

**ORDUTEGIA:** Astearte eta ostegunetan,  
9.30etatik 12etara

**EZ ZAITEZ TITULU GABE GERATU.  
CIM-EN LORTZEN LAGUNTZEN DIZUGU**


Araba Etorbidea, 4 º: 79 01 32 ARRASATE • Olakua, 14 º: 71 60 00 ONATI

# Ingurugiroari buruzko mintegia San Viatorren

San Viator Ikastolan Industria eta Ingurugiroari buruzko Mintegia izango da datorren astean, iaz bezala. Bizigiro Osasuneko moduloaren osagarri moduan antolatuta da, baina ingurugiroa eta enpresarekiko kezka duen edozeinek hartu ahal izango du parte. Jardunaldiok bi helburu nagusia izango dituzte: Helburu akademikoa, Bizigiro moduloan ikasten diharduren ikasleei begira, euren prestakuntzan arlo profesionalera hurbildu nahirik. Osasun publiko eta Ingurugiroko sektoreen administrazio eta gestio prozesuen konplexutasuna ikusirik, ikasleek arlo horiek ezagutzeko ahalegina egin nahi da eta moduloan jasotzen duten heziketa teorikoa osatu.

Bestalde, helburu publizitarioen artean, Bizigiro Osasuneko Teknikari Espezialisten dimentsio soziala hobetzea ere lortu nahi litzateke.

Datorren astelenean hasita eta ostegunera arte egunero, goizeko 9etatik ordubatera bitartean, gai jakin baten inguruko hitzaldiak eta eztabaida saioak izango da. Hasteko, Enpresetako ingurugiro sailez arituko dira. Ikuspegi ekonomikotik, berriz,



Ikasleak enpresa mundura hurbilduko dira.

ekoauditoreak, ekoetiketak eta merkatu bakarra izenburupeko hitzaldia izango da martitzenean. Legeari dagokionez, "delitu ekologikoa eta enpresa" gaia eta ikuspegi orokorrako batetik, "Euskal Industria eta Ingurugiroaren desafioaz" ere jardungo dute azken egunean aditu batzuk.

Mintegi honetarako Gipuzkoako enpresa guztiei eta eta beste euskal enpresa askori luzatu zaie gonbitea eta dagoeneko inguruko batzuk konfirmatu dute partehartzea.

## Maltzaga-Urbina

- 14.000 lagun inguruk
- ikusi zuten, Maltzaga-Urbina ardatzaren inguruan
- Debasak herrian jarri zuen erakusketa. Erakusketaren antolatzaileen ustez,
- erakusketa ikusi dutenen kopurua garrantzitsua da. Arrasate eta inguruko herrietako bizilagunak hurbildu ziren Lau Biden jarri zuten erakusketara. Momentu honetan, Eibarren dago erakusketa.

## 75 iradokizun

Egitamu orokorraren gainean egindako 75 iradokizun heldu dira Udaletxeko hirigintza sailera. Orain iradokizun horiek aztertu egingo dituzte eta onartuz gero, hasierako onarpena izango duen testuan sartuko dituzte. Horrez gain, iradokizuna aurkeztu duten guztiei erantzuna bidaliko zaie.

## Bideoteka

Liburutegian bideoteka antolatuta nahi dutela eta, Udaletxeak 4 telebista, 4 bideo eta beste hainbeste aurikular erosiko ditu. Erosketa horiek egiteko 536.000 pta gastatuko dira.

# San Martin Osasundegia

DERMATOLOGIA

UNITATEA

Garciandia Doktorea

PATOLOGIA DIGESTIBOEN

UNITATEA

Otazua Doktorea

OBSTETRIZIA ETA

GINEKOLOGIA UNITATEA

Serrano Doktorea

PSIKOLOGIA

UNITATEA

J.R. Fernandez

ZIRUGIA UNITATEA

Alberro Doktorea

Ramon María Lili, 2

BERGARA

•

Tfnoa: 76 59 39/72

•


Faxa: 76 25 72

**Mikel Iturbe** atxabaltarra izan da Senideak elkartearen Gabonetako zozketaren irabazlea. Mikelek 1.239 zenbakia zuen eta zenbaki hori izan da saritua. Egurrean landutako Gernika kuadroa jaso du saritzat. Errifa saldu zutenak **Harristi** eta **Josepa Arregi** izan ziren.



Gabonetako Squash eta Tenis txapelketako irabazleak honako hauek izan dira: Squashean lehen postuan **Asier Linazisoro** bergarrara geratu zen eta bigarren Gorka Madinabeitia atxabaltarra. Tenis txapelketan irabazlea Teri Cid arrasatearra izan genuen eta Jabi Balzategi oñatiarrak bigarren tokoa eskuratu zuen. Argazkian Asier Linazisoro saria jasotzen.

**Jon Andueza**, 28 urteko kazetari arrasatearra lehiaketa berria hasiko du ETB astelehenean. Egunero eguerdiko 2.30etatik aurrera Jon Anduezak aurkeztzen duen "Gutxi Gorabehera" lehiaketa ikusteko aukera izango dugu. "Hor dago Koxka" lehiaketa arrakastatsua aurkeztu ondoren, beste erronka bati heldu dio Jonek "Gutxi Gorabehera" lehiaketarekin. Zorte on, Jon!



**ARRASATE  
HOTELA**



Biteri, 1 Tfnoa: 79 14 16

.....  
**ELEKTRONIKA  
ARTIKULUEN  
SALMENTA**  
.....



J. Carlos Guerra, 1 Tfnoa: 79 91 64 ARRASATE

**ALTAMIRA  
KLINIKA**

Mikrotxip-aren  
betebeharreko  
kanpaina  
abenduaren 31ra arte

J. L. Iñarra, 24 Behea  
☎: 79 74 89



**Alaine Olabari Bedia beraz, 1995ean jaio** **neko lehengo negarrak**  
**urtarrilaren 3an jaio** **den lehen arrasatea** **eta barreak egin ditu.**  
**zen, Arrasateko Ospi-** **rra. 3.565ko pisuaz jaio** **Argazkian bere anaia**  
**talean. Alaine da,** **zen Alaine eta dagoe-** **Pellorekin.**



Epele

**Jose Felix Cia** eta  
**M<sup>o</sup> Luz Martin**  
 arrasatearrak azaroan  
 ezkondu ziren eta  
 Dominikar Errepublikara  
 joan dira ezkon-bidaian.  
 Zorionak!

## IZEN PROPIOAK

● **Ane Leibar Balzategik**, 25 urteko arrasatearrak, egiten ari zen Masterra bukatu eta azken Tesian diploma eta diru saria lortu ditu, tesi-rik onena aurkeztu zuelako. Tesiaren izenburua "Intelligent integration of computer aided inspection with CAD/CAM system" da. Injinerutza ikasi zuen Eskola Politeknikoan eta goi mailako injinerutza ikasketak Nottinghamango Unibertsitate Politeknikoan bukatu ditu. Orain, Ikasbideko beka baten bitartez, Ederlanen ari da lanean.

● **Jabier Retegi**, 57, Arrasaten bizi den bergararra izango da Industria, Nekazaritza eta Arantzako Sailburu berria. Arrasateko kooperatiben munduaz lotura zuzena izan du betidanik. Ikerlanen eta Euskadiko Kutxan lan egindakoa da eta Eskola Politeknikoko zuzendaria ere izan zen 13 urtez.


HIZKUNTZ ARAZOAK

HIZKETA ARAZOAK

AHOTS ARAZOAK

IRAKUR ETA IDATZ ARAZOAK

Zurgin Kantoi, 3 - 1<sup>o</sup> Esk.  
 Tfnoa: 79 79 46 • ARRASATE



LOGOPEDIA  
 ZENTRAU  
 ARRASATE



ZARRAOA  
 ZARRAOA  
 EL ARCA DE NOE

- Estetika kabinetea
- Larruzko artikuluak
- Bitxitegia
- Jostailuak

Kanpatorpea, 4  
 Tfnoa: 79 12 19 ARRASATE

**ERREAL - ZALEAK**  
 La revista del fútbol guipuzcoano  
 n.º 43  
 diciembre 94  
 150 ptas.

**ENTREVISTAS**  
**Benito Floro:**  
 Hay cosas más importantes en el fútbol que la suerte, pero es necesario tener suerte para conseguirlos

**Kodro, en busca del "pichichi"**

**LA CANTERA**  
 ¿Qué pasa en la cantera de la Real Sociedad?

**Alberto López:**  
 Ahora mismo, para mí jugar con el equipo no es más que un sueño

**AUPA REAL**  
**CUSTOM**  
**NICKELSON**  
 JEANS • CAZADORAS • y ahora también, MUJER  
**REBAJAS**  
**CHEVIGNON**  
 Paseo Colón, 9 (GROS) • Telf. 28 79 85 • SAN SEBASTIAN

**ERREAL - ZALEAK**   
 Gipuzkoako futbolarien aldizkaria  
 III urtea  
 44 zenb.  
 95 urtarila

**Kanterako futbola babesten jarraitzen dugu,  
 zenbaki berezi batekin orain**  
**“MONDRA”RI BURUZKO  
 BEREZIA**


**ERREPORTAIK:**

- Mondra F.T.
- Gijongo Sporting
- ERREALA-SANTANDERgo Sporting


**ELKARRIZKETAK:**

- NEDZAD ZIVOYEVICH (Mondrako entrenatzailea)
- Jose Luis Ezkurra (Mondrako Presidentea)
- Xabier Zubizarreta (Arrasateko Alkatea)
- Mariano Garcia Ramón (Gijongo sporting-aren entrenatzailea)


**Ez ahaztu zure alea. Ohiko kiosko edo liburudendetan aurkituko duzu.**



**weru®**  
**Ate + leihoak**



Markulete Industrialdea, 20. pabiloia  
 Tfnoak: 79 24 12 eta 79 97 95 ARRASATE



**Ezagutu itzazu PVCren bitartez gaur egun eskura dauzkazun leiho miresgarriak, ez hotsik, ez berorik, ez soinurik...**



Futbito 94-95

Txapelketa

ZALDIBAR  
ZALDIBAR

Babesleak: JMR, Kajoj taberna eta Arrasate Kirolak



## Hiru talde kanporatuta dagoeneko

Foto Imagen eta Bodisca taldeek ez dute hanka onez hasi 95 urtea. Bodisca, zapatuan goizeko 9etan jokatu behar zuen neurketara aurkeztu ez zelako eta Foto Imageneakoak domekan 12etan partidura agertu ez zirelako, txapelketatik kanpo geratu dira. Talde horiei Anorthosis Agudah, iaz arrazoi berberetatik txapelketa utzi zuen taldea gehitzen badiogu, dagoeneko, hiru taldek bukatu dute 94-95 Zaldibar txapelketa. Talde hauek jokuan ez

dabiltzanez, euren kontra jokatu behar duten taldeek atsedena izango dute. Asteburu honetan esate baterako, Los Heredia, Txoko Taberna eta Perrahotsak ez dute jardunaldirik jokatu eta partidua irabazita emango zaie hirurei. Bestalde, epaitzera aurkeztu ez izanagatik zigortutako taldeei, behin baino gehiagotan esan dugunez, lehen fasea bukatzean kenduko dizkiete puntuak. Hau da, otsailaren 26tik aurrera etorriko dira puntu kenketak.



**Felipe**  
**Arrizabalaga**  
**AROSZTEGIA**

- SUKALDE-ALTZARIAK
- SARRERAKO ETA BARRURAKO ATEAK
- ARMAIRU ENPOTRATUAK ATE KORRIGARRIEKIN


Legarre pabiloia, ARRASATE Tfnoa: 79 22 76

A taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
CERV. LEINTZ	12	10	0	2	77	23	<b>20</b>
ADELAIDA HAIZEA	12	9	2	1	60	28	<b>20</b>
BUKANAK	12	9	2	1	34	33	<b>20</b>
SALENCO Y KONP.	12	10	0	2	61	28	<b>20</b>
ZULOAK	12	7	4	1	53	30	<b>18</b>
ZOTZ	12	7	2	3	46	34	<b>16</b>
FOSFOROS	12	7	2	3	47	24	<b>16</b>
KRISKIBALDA	12	7	0	3	44	44	<b>14</b>
HIREI	12	6	1	5	58	36	<b>13</b>
ARRASATE KIROLAK	12	4	3	5	50	31	<b>11</b>
ATERPE	12	5	1	6	37	44	<b>11</b>
GANBELAS	12	4	2	6	39	37	<b>10</b>
LOS DALTON	12	4	2	6	41	54	<b>10</b>
FRAGUEL GOL	12	3	2	7	37	50	<b>8</b>
INSERT COIN	12	3	1	8	30	64	<b>7</b>
ASTOEN VILLA	12	3	1	8	37	65	<b>7</b>
BAYER LEINTZ	12	2	2	8	36	61	<b>6</b>
EZTANDA EGIN ARTE	12	1	4	7	27	70	<b>6</b>
ILUNA BAR	12	2	1	9	20	68	<b>5</b>
STRAUSS	12	1	0	11	37	80	<b>2</b>

B taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
TRIKITI	12	10	0	2	72	18	<b>20</b>
NUEVO TABERNA	12	9	1	2	59	34	<b>19</b>
UGLYS TXINATO	12	8	2	2	73	27	<b>18</b>
SUM UGARTE	12	6	2	2	56	24	<b>18</b>
TOTEN	12	7	3	2	58	28	<b>17</b>
PEPELUS	12	8	1	3	53	28	<b>17</b>
TXEYENEX	12	8	1	3	58	31	<b>17</b>
PUB PEOPLE	12	8	1	3	67	41	<b>17</b>
DANOK LAGUN	12	6	3	3	58	33	<b>15</b>
PETROLEROS	12	7	1	4	52	32	<b>15</b>
LOS DIMY	12	6	1	5	59	36	<b>13</b>
BERANGO SUKAL	12	6	1	5	38	34	<b>13</b>
ANBOTOSTE	12	3	3	6	34	41	<b>9</b>
NO COMMENT	12	3	3	6	29	71	<b>9</b>
LA BANDA	12	2	2	8	25	60	<b>6</b>
EZKINAKO HONTZAK	12	2	1	9	24	67	<b>5</b>
MONTERREY TAB	12	1	2	9	24	75	<b>4</b>
TOVARITX	12	2	0	10	17	61	<b>4</b>
ARRASATE ZOO	12	1	1	10	22	69	<b>3</b>
ORKATZ	12	0	1	11	22	89	<b>1</b>

C taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
IRATI STS	12	12	0	0	77	16	<b>24</b>
LORATEGI POT.	12	8	2	2	41	21	<b>18</b>
EQUUS	12	8	1	3	64	33	<b>17</b>
ORLAN. PIRATAS	12	8	1	3	50	30	<b>17</b>
ARTZANKOS	12	8	1	3	45	30	<b>17</b>
KE OXTIAS	12	8	0	4	51	45	<b>16</b>
AUTOS MURU	12	7	1	4	18	28	<b>15</b>
NABARROS	12	7	0	5	52	45	<b>14</b>
FRANTZISKANNER	12	6	2	4	42	37	<b>14</b>
PERRAHOTSA	12	6	1	5	32	37	<b>13</b>
EXC. LETE	12	6	0	6	44	29	<b>12</b>
JOTAKABAU	12	3	4	5	33	41	<b>10</b>
BODISCA	12	5	0	7	37	43	<b>10</b>
KOKA JUNIORS	12	4	2	6	26	37	<b>10</b>
BANEUKO	12	3	2	7	26	40	<b>8</b>
LEYA	12	3	1	8	44	69	<b>7</b>
FOTO IMAGEN	12	2	2	8	33	52	<b>6</b>
POTROSORRI	12	2	0	10	26	64	<b>4</b>
D.K.B	12	2	0	10	23	56	<b>4</b>
TXOKO TABERNA	12	1	2	9	22	67	<b>4</b>

D taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
ARGI IBILI	12	11	0	1	74	22	<b>22</b>
MSM INGE.	12	10	1	1	61	20	<b>21</b>
A.C SURCOS	12	10	1	1	78	43	<b>21</b>
D.A IRIZTU	12	8	3	1	61	33	<b>19</b>
MIKELOS	12	8	0	4	56	30	<b>16</b>
OJO AVISORE	12	7	1	4	50	40	<b>15</b>
LOS HEREDIA	12	7	1	4	56	46	<b>15</b>
SOKOAKOAK	12	6	2	4	45	44	<b>14</b>
BORROCK'N ROLL	12	5	2	5	50	40	<b>12</b>
LAUTHERBRUNNER	12	6	0	6	52	43	<b>12</b>
B.Z SISTEMAS	12	5	1	6	29	36	<b>11</b>
ALTZA PORRU	12	5	1	6	45	42	<b>11</b>
TRONKOTEAK	12	3	4	5	37	56	<b>10</b>
ANORTHOSIS	12	5	0	7	29	32	<b>10</b>
KAKAJAURI	12	4	0	8	39	54	<b>8</b>
MOTZ	12	3	1	8	47	56	<b>7</b>
SUKAR	12	2	1	9	38	65	<b>5</b>
TEODOLITO	12	2	0	10	30	79	<b>4</b>
ELISABETH	12	2	0	10	24	66	<b>4</b>
RESAKAS	12	1	1	10	29	93	<b>3</b>



# URONDO

## elektrizitatea

- \* Elektragaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismoak
- \* Proiektuak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa

Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76

ARRASATE



Ikusteko moduko bi neurketa eskaintzen dizkigu jardunaldi honek. **Batetik, Diego Antonio Iriztu eta Argi Ibiliren arteko neurketa dugu zapatuan ordubatean eta bestetik Petroleros eta Trikitiren artekoa, domekan 12etan. Azken hori, jardunaldiko partidua izango da, zalantza barik. Bestalde, Bukanak eta Adelaïda-Haizea eta Artzankos Udalaïtz eta Ke Oxtiasen artekoa ere gomendatzen dizuegu.**

**BELARRIRA**

◆ **Zigorak.** Fraguel Gol eta Arrasate Kirolak taldeek bi puntu gutxiago izango dituzte lehen fasea bukatzean, epaitu beharreko neurketetara agertu ez zirelako. Arrasate Kirolakek ostiralean goizeko 9etan epaitu behar zuten neurketa eta Fraguel Golek domekan 9etan. Agertu ez izanak bi puntu gutxiago izatea ekarri die.

◆ **Kanpora.** Talde batzuk zigortzen dituzten neurrian, beste batzuk kanporatuta daude, dagoeneko. C taldeko Foto Imagen eta Bodisca taldeko jokalaria ez ziren euren zitetara aurkeztu eta aitzaki onik azaldu ez zutenez, txapelketatik kanpo utzi dituzte antolatzaileek.

◆ **Euria.** Ostiralean bota zuten euri zaparrada bihurtu zen protagonista Zaldibarko txapelketan. Nolanahi ere, euriagatik ez zen bertan behera geratu txapelketa eta lurra labana zegoen arren, ez ginen ezbeharrezko jokaldien lekuko izan.

**EMAITZAK**

**A Taldea**

- Cerveceria Leintz 3 - Aterpe 1
- Iluna Taberna 3 - Zotz 4
- Strauss2 - Hirei 8
- Bayer Leintz 8 - Fraguel Gol 3
- Kriskibalda 3 - Zuloak 8
- Astoen Villa 4 - Arrasate Kirolak 10
- Bukanak 3 - Eztanda egin arte 1
- Salenco y Konp. 1 - Adel Haizea 4
- Fosforos 5 - Insert Coin 5
- Los Dalton 0 - Ganbelas 2

**B Taldea**

- Uglys Txinato 5 - Berango Sukal 1
- Ezkiñako Hontzak 3 - Txeyenex 5
- Monterrey Tab. 0 - Sum. Ugarte 11
- Los Dimy 1 - Totem 8
- Petroleros 2 - Pub People 6
- Pepelus 1 - Trikiti 0
- Orkatz 3 - Nuevo Tab 8
- Anbotoste 2 - La Banda 2
- No Comment 3 - Danok Lagun 11
- Arrasate Zoo 1 - Tovarixt 4

**C Taldea**

- Equs 2 - Ke Oxtias 4
- Potosorri 1 - Irati sts 10
- Autos Muru 3 - Orlando Piratas 4
- Perrahotsa 3 - Baneuko 3
- D.K.B 1 - Foto Imagen 0
- Nabarro 3 - Koka Juniors 1
- Lorategi Potroak 2 - Frantziskaner 2
- Bodisca 0 - Jotakabau 1
- Leya 11 - Txoko Taberna 3
- Artzankos Udalaïtz 3 - Exc. Lete 2

**D Taldea**

- Motz 5 - Tronkoteak 2
- Alta Porru 8 - Kakajauri 3
- MSM Ingeni. 3 - Mikelos 2
- Borroak 'n Roll 3 - Resakas 3
- D.A Iriztu 7 - Sukar 3
- Sokoakoak 2 - Argi Ibili 12
- Elisabeth 4 - Lautherbrunen 3
- Los Heredia 5 - A.S Surcos 7
- B.Z Sistemas 1 - Anorthosis 0
- Teodolito 3 - Ojo Avisore 7

**Monte**  
**taberna**

Maalako arrabala, 11  
Tfnoa: 79 20 56

● **Txitxinpe** ●  
Berezitasunak:  
Kafea, ardoa, urdaitegia,  
fruitu lehorrak

Arrasate Pasealekua, 33  
ARRASATE Tfnoa: 79 67 76

**URRATS**  
**AHOLKULARITZA**

GARIBAI, 3  
Tfnoa: 79 87 74  
ARRASATE

**TTUKUN**

Fotokopiak  
Enkuadernazioak  
Koloretan fotokopiak  
Planoen erreprodukzioa  
Offseta

Ferrerias, 23 ARRASATE  
Tfnoa: 79 46 62

 **CIM**  
HIZKUNTZAK-IDIOMAS

**FIRST CERTIFICATE OF CAMBRIDGE**

- LARUBATETAN KLASEAK
- ORAINDIK DENBORAZ ZABILTZA
- ZATOZ, EMAN IZENA ORAIN

First Certificate - First Certificate - First Certificate - First Certificate - First Certificate  
Larunbatetan - Larunbatetan - Larunbatetan - Larunbatetan - Larunbatetan - Larunbatetan  
9.30etatik 12.30etara - 9.30etatik 12.30etara - 9.30etatik 12.30etara

Araba Etorb., 4  
ARRASATE

79 01 32  
Tfnoak: 79 65 54

**ASTEBURU HONETAN**

**Larunbata 14**

**Zaldibar**

- 8.50 Altza Porru - Mikelos
- 10.00 Salenco y Konpañia - Insert Coin
- 11.00 Equis - Irati STS
- 12.00 Monterrey Taberna - Totem
- 13.00 D.A Iriztu - Argi Ibili
- 14.00 No Comment - Tovarixtx
- 15.00 BZ Sistemas - Ojo Avisore
- 16.00 Los Dimy - Pub People
- 17.00 Artzankos Udalaiz - Ke Oxtias
- 18.00 Los Dalton - Aterpe
- 19.00 Ezkiñako Hontzak - Sumis. Ugarte

**Iturripe A**

- 11.00 Iluna Taberna - Hirei
- 12.00 Uglys Txinato - Txeyenex
- 13.00 Autos Muru - Baneuko
- 14.00 Elisabeth - AC Surcos
- 15.00 Strauss - Fraguol gol
- 16.00 Potrosorri - Orlando Piratas
- 17.00 Sokoakoak - Lautherbrunnen
- 18.00 Arrasate Zoo - Berango Sukaldeak

**Iturripe B**

- 12.00 Fosforos - Garpelas
- 13.00 Lorategi Potroak - Jotakabau
- 14.00 Bayer Leintz - Zuloak
- 15.00 Leya - Exca. Lete
- 16.00 Kriskibalda - Arrasate Kiroлак
- 17.00 DKB - Koka Juniors
- 18.00 Anbotoste - Danok Lagun

**Igandea 15**

**Zaldibar**

- 8.50 Orkatz - La Banda
- 10.00 Astoen Villa - Eztanda egin arte
- 11.00 Nabarros - Frantziskanner
- 12.00 Petroleros - Trikiti
- 13.00 MSM Ingeni - Besakas

**Iturripe A**

- 11.00 Teodolito - Tronkoteak
- 12.00 Cerveceria Leintz - Zotz
- 13.00 Motz - Kakajauri

**Iturripe B**

- 11.00 Borrock'n Roll - Sukar
- 12.00 Bukanak - Adelaida Haizea
- 13.00 Pepelus - Nuevo Taberna



**Irati STSk 12 partidutatik 12 irabazi**

**Irati** STS txapelketako talde sendoena dugu, orain arte behintzat. Jokaturako 12 jardunaldietan ez du kale egin eta Zaldibarren jaun eta jabe da 24 punturekin. Argi Ibili taldearen lana ere azpimarratzekoa da, partidu bakarra galdu du eta, 22 punturekin, beraz, bigarren talde onena da. Hala eta guztiz ere, hemendik otsailaren 26ra arte ondo izerditu beharko dute kamiseta sailkatzeko asmoz dabilzan taldeek. Zergatik? Aurreneko postuetan dauden taldeen alde benetan txikia delako. Esanak esan, lahen fasea bukatzeko geratzen diren

partiduetan espektakulua eta lehia ziurtaturik izango ditugu ikusleok. Beheko zuloan sarturik dauden taldeek, bestalde, lasaiago jokatuko dituzte falta zaizkien neurketak. Ez dute ezer jokuan eta lasaitasun horrek hobeto jokatzerara eramán ditzake. Errepaso horretan, Fosforos taldea aitatu beharrean gaude, izan ere, iazko finala Fosforos eta Argi Ibilik jokatu zuten eta aurten Fosforos A multzoko 7. postuan dugu 16 punturekin, sailkatzeko mugan larri eta estu. Iazkoa errepikatzeo nahikoa lan izango dute aurrerantzean.



*Kalitate gorena leihoretan.*

**LANTEGIA ETA ERAKUSKETA**

Kataide poligonoa, 4. pabilioia. Tfnoa: 77 01 57 ARRASATE

**VE ECUADOR**

Bidaiak

**Bidaia zoragarri bat irabazi nahi baduzu, har ezazu parte ATBketan lehiaketan. Ez galdu aukera!**

Kontzeziño, 2  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 14 06

# ● Rufino Oianguren Urrezko eztaiak frantziskotar

**Rufino Oianguren Uribetxebarria**  
1929ko ekainaren 14an Bolibarko Alzarten jaioa.  
Ikasketak: gutxi, jolasa nahiago.  
50 urte Frantziskotar, azken 33 urteak Arrasaten.

– Zer moduz urrezko eztaien ospakizuna? Ederto. Elizkizun ederra Bolibarren, familixako gozotasunien, jente asko mezetan; agradezirute nau Don Kruzi, Bolibarko abadiiei. Gero Mundrauera ekarri ninduen eta nik ez nekixen ezer eta hor dator bandie eta “zuretzako” eta nerbioso jarri nitzen; ume bi aurrekua ataraten eta orduentxe negarrak urteusten eta larri egon nintzen. Gero alkatiek txapela eta bastoia eta plaka bat eta lorak. Lorak Arantzazuko Amabirjinari eskeini nutzen, Mondraueko herrixen alde.

– Gauza espezial bat be eiñ zeuen, ezta? Atsaldien Arantzazura fan nitzen oñez Oñatitik, oiñ 50 urte moduen. Zoragarrixe izen zan: lañuek bajetan zien eta gañien ninddoiela esan zeikien. Hamabost misterixoko errosarixue errezau neuen, bakoitzien kantauaz, eta pozik fan nintzen, igerri barik, eurixe galanta izen arren. Oiñ dala berrogetamar urte einddakue barriro eittie gure nauen.

– Arantzazura lehenengo noiz fan zitzen? 15 urtetik, Bolibarko beste bat, Julian, eta bixok. Harrezkero, Foruan, Oliten eta Arrasaten egon naz.

– Mezakoa izen gura zeuen? Ez, etxaten gustetan, ez nauen gure; niri estudixetaik etxaten gustetan, jolasa eta bai. San Frantziskoren bizitza ezautu nuenean oinddio ilusio gehixaukin lego

– Bokaziñue zelan etorri jatzun? Nire bokaziñue batez be amana izen zan hasieran eta niri gerora etorri jaten benetako gogue.

– Eskien ibili zara? Ez, gutxi. Foruan baserritan orturako satsa eskaketan, hartantxe, bestela ez.

– Sukaldien nun ikesi zeuen? Lenengo Foruan aiudante egon nitzen. Gero Donostian, Barandiaranen egon nitzen Bulevarrean eta gero Egañan. Handik Olitera fan nitzen, kuadrila galantantzat koziñero; 140ko bat edo izengo gitzen. Orduko lana gogorra zan, dan-dana eskuz eiñ biher izeten zan! Han geixotu eiñ nitzen eta Arrasatera bialdu ninduen gero. Harrezkero hemen nau.

– Zure lana zein izen da hemen? Sukaldie eta etxeko lan danak, elixako ardura dana, atie zainkettie, (orduen lan haunditxe izeten zan konfesonaixuen eta beste danak han egoten zien). Hamalau monagilo neuken eta neska bi lagunketako.



– 50 urtion balantzie? Niretako oso interesantie. Gau beltzak egoten die, hori ez dau ukatzeik. Gure Jaunak askotan, pozik zazela, gau ilun baten isten zau, eta orduen eiñ biher dana da jarraitu. Ez da beti karamelue txupetan egotie.

– Kalistruerk zer die zuretzat? Bizitza erdi. Ahal doten denbora dana eitten dot, alaittu eitten naue. Domeketan eta itxitta egoten da eta hutsuna bat sentitzen dot. Bizitza erdi hori eta beste erdi komentue.

– Eta kalistruetako gaztiek? Jente jatorra, sanue da eta nik asko maitte dittu eta eurek be bai ni.

– Rufinoren afiziñuak? Profanue? Musien. Lehenau pelotan be bai, baiñe oiñ

zahartute nau. Debilidatie, bertsuek.

– Zelan errezetan dozu? Euskeraz, brebiarixotik.

– Amets bat? Euskaldunok alkartie eta bat eittie; izen gaittezela danok anai-arreba benetakuek. Tematxuekin bizi gara, lehengo euskaldunen bizimodue, Jaunagana alkartu, konfiantzan.

– Urte barrixari zer eskatutzazu? Hasi gaittezela kalien euskeraz eitten. Eta Arantzazuko Amabirjiñiai ordezo bi bialketako, bokaziño barri bi: bata nire ordeze eta bestea Julianen partez.

– Bolibartarra ala Mundrauetarra? Bolibar ezin neike ukatu, ahuntzak mendira tiratzen dau. Baiñe Arrasate eta arrasatearra benetan maitte dot.

– Doskaballosa noiz arte? Larri dabil; bañe badabil eta... Jaungoikuek gure dauena izen deila!

● **“Omenajeko lorak Arantzazuko Amari eskeini nutzen, Mondraueko herrixen alde”**

# Urkuluko harrobia eta Urbaltz erreka berreskuratu nahian

**Urkuluko urtegia eta bere inguruak moduko paraje dotorerik ez da nonahi aurkitzen. Mendiz inguraturik dagoen urtegian natura gertutik bizi izateko aukera izaten dugu. Baina Urkuluko inguruak duten edertasuna ez galtzea guztion lana da. Oinezkook ahalik eta ondoen zaintzen ahalegindu behar dugu eta erakundeek inguruak egoera onean edukitzeko beharrezko neurriak jarri behar dituzte.**



Urkuluko harrobia, Urbaltz errekatxoa eta errepeidea konpontzeko lanak hasiko dira.

Urkuluko harrobia eta errekatxoa berreskuratzeko lanean hasi da Aretxabaleko Udala, dagoeneko, eta epe motzean Koruetatik urtegi-raino doan bidea konpontzen hasiko dira, hau guztia egiteko proiektua Udalean onartuta dago eta.

Errepeidearen hobetzeak, dena dela, ez du esan nahi kotxeek bertatik pasatzeko

aukera izango dutenik. Kotxeekiko orain arte ezarrita dagoen legea aurrerantzean ere errespetatu egin beharko da eta inguruko baserrietako bizilagunek bakarrik izango dute kotxeekin euren etxetara joateko aukera. Koruetatik harrobiraino doan bidea eta harrobitik presaraino doana zuloz beteta dago eta bide ertzeko arekak erdi estalita daudenez, arazo horiek konpondu egin nahi dituzte zuloak estaliz eta arekak egoera onean jarriz. Hobekuntza, beraz, ez da bidea asfaltatzea izango, dauden zuloak estaltzea baizik.

## HARROBIAREKIN ZER GERTATUKO DA?

Urkuluko harrobiak zuen edertasuna berriz berreskuratzeko lur betegarri batzuren estaliko dute. Horretarako une honetan 200 mila metro kubiko lur behar dira. Lur kopuru gehiena kanpotik ekarri beharra dago, bertan erabiltzeko moduan dagoena

nahikoa ez delako. Hori guztia egin eta gero, mendoitz egonkorra lortuko litzateke. Material betegarria aukeratzeko orduan ondo aukeratu beharko dute zer lur mota erabiltzen den, toxikoak edo arriskutsuak diren materialak ezin izango dituzte erabili eta. Harrobiarekin batera erreka konponduko dute, orain dauden hormigoiak eta hodi biak kenduz. Hodi horiek harrobia esplotatu ahal izateko kamioien pasabide moduan erabili ziren garai batean eta gaur egun, ez dute inolako funtziorik. Gainera, errekan betidanik egon diren urjauzi biak errekupe-ratu nahi dira. Aipatutako konpontze lanak hiru urteko epean bukatuta egongo lirateke prebisioak ondo bete ezker.

Aurrekontua 26 milioikoa da, 12 milioi erreka berreskuratzeko erabiliko lirateke eta gainontzekoa harrobiarentzako; Foru Aldundiko Ingurugiro Sailak ere 15

milioiko dirukopurua eman du konpontze lanak egiteko. Erreka eta harrobiaren hobekuntzarekin, harrobiak ustiatzen hasi aurretik zuen itxura hartuko luke, eta zonaldea bertako zuhaitzez estaliko litzateke, garai bateko paisaiaren aberastasuna lortuz.

## AISIALDIRAKO ZONALDEA

Atxabaltako Udalak aitatutako berritze lanak onartu egin ditu eta berehala lanean jarriko dira; hala ere, aurrerantzean zonalde hori aisialdiko ekintzetarako erabiltzea ez du baztertu.

Harrobiko inguruak eskalada egiteko, rokodromo moduan edo pasiatzeko egoki daitezke edota begiratoi bezala jarri, bertatik bista ikusgarriak ikus daitezkeelako. Azken puntu hori oraindik ez dago erabakita eta lan guztiak bukatu arte ez dute zehaztuko harrobiaren inguruak zertarako erabiliko diren.

# G

arai batean

zeuden bezala

utzi nahi dute

Urkuluko

harrobia eta

Urbaltz erreka.

# Urtegiko hegaztiak

Denporapasa nahiz kirolerako toki aproposa izateaz gain, urtegiari bizi diren animaliekin gozatzeko aukera ematen du Urkuluk. Horretarako, jakina, begira jarri beharra dago.

Alde batera dagoen irlatxoa, esate baterako, ur-hegaztiekin konkistaturik dute. Diputazioak "toki babes-tua" izendatutako tokian gero eta hegazti gehiago bizi da eta

batez ere, sasoi honetan. Prisma-koak hartu eta begirada irlara zuzentzen baduzu, honako ur-hegaztiak ikusi eta zelan bizi diren jakiteko modua izango duzu.



## Ubarroia

Handia, iluna. Neguan egoten dira. Arrantzan trebeak.



## Antzarra

Noizean behin etortzen dira Urkulura. Tamaina handikoak. Zelaietako bedaria jaten ere ikus daitezke.



## Basatea

Urte guztian zehar egoten dira. Ahate honen gorputza koloretsua da, burua eta lepoa berdeak ditu, bularra gaztain kolorekoa eta gorputza argia.



## Murgilaria

Urkulun sarritan izaten da ahate lodixka hau eta batez ere eguraldi hotzaz.



## Zertzeta

Ahateen artean txikiena da. Buru ilunean marra txuria dauka.



## Uroiloa eta uroilo nagusia

Ugari daude. Oiloaren tamainuko hegaztia da. Uretatik irteteko "karrerilla" hartzen dute. Bi hegaztiok, kabia ur ertzean egiten dute.



## Hegabera

Neguan etortzen dira Urkulura, toki umelaren bila. Talde handietan ibiltzen dira.



## Koartza lepo zuria

Hamabosten bat urte guztian zehar bizi dira Urkulun. Itxura denez, jaio eta hazi ondoren, batzuk alde egiten dute baina beti hamabosten bat geratzen dira. Mokoak, lepoa eta zangoak oso luzeak ditu. Hegan doanean, lepoa gorde eta zangoak luzatu egiten ditu.

## Murgil erregea

Hotz handia egitean etortzen dira. Gehienetan uretan egoten dira. Oso politak dira.



## Txilinporta

Landaretza asko dagoen tokiak gustatzen zaizkio. Potolotoak, janaria bilatzeko uretan sartzen dira.

AMILOTX ekologi taldeak, 1988an egindako lanetik hartutako datuak.

# Zer daukazu esateko Urkuluri buruz?



**Jon Jauregi**  
(Fagorreko teknikaria)

Niri Urkulu asko gustetan jat eta deporte apur bat eitteko aprobetxetan dot, korrikan eitteko. Arrasatetik kotxien etorten naz normalien. Domeka goixetan nahikue estu ibiltten gara aparketako. Ni lanetik urtendakuen etorten naz, jente gutxiau egoten da eta.

Ingurue ondo dauela uste dot, dana mejourau leiken arren. Hemen gauza asko eñ leike, ganorazko Parke Natural erara prestatu leikela uste dot; zuhaitz mota gutxi dau eta horretan be mejourau leikela pentsetan dot.

Asfaltetie ondo pentsetan jat, kotxeik sartzen ez bada, bestela kotxien-tzako zirkuito bihurtuko da. Bestela, lokotzarie kentzie ondo dau.



**Marta Izagirre**  
(Musika irakaslea)

Bizikletan ibilttera edo oinez buelta bat emutera etorten naz. Asko gustetan jat eta asko etorten naz. Gero eta zikinago dau; gero eta jente gehixau etorten da eta ez da zaintzen. Udan batezbe, hondartza emuten dau honek.

Kotxiena eta, hasieran udaletxie hasi zan debekatzen, baina jentia ez dau errespetetan eta norberak errespetatu behar luke hori. Asfaltatzea oso gaizki ikusten dut, kotxe gehixau etorriko da eta. Ahal dala, oinez etorri behar genuke.

Erdiko islan dazen hegazitxek eta, badauket entzutie, baina ez dakit zelakuak dien. Dana dala, ez dot uste jentie horraino fango danik.



**Leandro Vallina**  
(Jubilatua)

Pasiatzera etortzen naiz, urtegia ikustea asko gustatzen zait eta. Arrasatetik etortzen naiz, beti oinez, gainera. Ez zait autoa ekartzerik gustatzen, ingurugiroa asko hondatzen da eta. Nik nahiago izaten dut hona etortzea kalean ibiltzea baino, txikiteoan eta baino.

Urkulun ibiltzen diren autoen kontua oso gaizki ikusten dut, autoz buelta ematera etortzen direnak ere badi-  
ria: hori ez da ona, ez animalientzat, ez pertsonentzat; baina ondo dago base-  
rietara joan behar dutenentzat.

Landareak eta, jende gehienak errespetatzen dituela uste dut, eta animaliak errespetatzea gustatzen zait, neuk asko ezagutu ez arren.

Asfaltatzearena, ez dakit. Alde batetik, ez lokazteko eta ondo dago, baina bestaldetik, ez dut ondo ikusten, auto gehiago ibiliko litzateke eta.

**Jesusa Urrutia**  
(Azatzako Etxaluze baserrikoa)

Jentiek ez dau zainketan, ez gartiek ez nausixek. Landarak eta asko ipini zittuen, baina eztie errespetetan eta bankuek eta ingurue be oso oso hondatute dau. Alanbrie apurtu be eitten daue.

Hau euzki-tokixe danez, hasi neguen eta udabarrirarte jente asko etorten da eta ilunkaran, batzuk etorten eta beste batzuk faten, egundoko trabie egoten da eta kotxiek aparkauta eta, zelaixetarako be bai.

Lehenago zor dan bidie dala ta firmak batu zien, baine Diputaziñuek ez dau erantzun. Eurak bihedauenien bai, tonelada askoko kamioiekin hor pase-tan die eta baserriarrok ez daukou basuetarako sarreraik.

Asfaltau barik dauen zatixe asfaltetien kontra ez nau, oiñ ibiltteko gaizki dau.

**Ixabel Etxeberria**  
(Larriñoko Zuatzu baserrikoa)

Jentie bere bidetik faten da eta ezto sekula inokin prolemaik euki. Kejie daukou jentiek plastikuek bota-teittu eta gero ganauek tragau eitten daue eta akabau eñ leikez. Bestela, zelaixetan jente asko ibiltten da, txan-pinoi sasoen eta, eta alanbrie apurtu be eitten ditue. Gero ganauek urten eitten daue.

Kotxientzat aparkaleku on bat falta da. Etxaluzeko kurtzien egoten die eta hemendik goietzenontzat oso peligrasue da han errebueltie hartzie.


Dana asfaltetiek kotxe gehixau ekarri leike baina oiñezkuentzat ona da arregletie.

**Bixente Zubia**  
(Koruetako Mendietxe baserrikoa)

Gaizkixen jentiek ekarten dituen txakurrekin ibiltten gara, ardirek sus-tetan ditue eta. Eztaue pentsetan dañurik eitten dauenik, bañe ardirei añiketean erain ezker, biltsak galdu eitteittue.

Etxe inguruen ez gara molestetan. Itturixe neuretzat gauzona da, eta jentiek errespetetan dau, auzokuek bilurra aukien bañe. Asfaltetie be neuri ondo pentsetan jat; oiñ basora fateko buelta haundixe daukou eta zulueta tratorie itxulketako moruen ibiltten gara askotan.

Diputaziñuen terrenuek abandonate daz, ez guk aprobetxetako ez Diputaziñuendako, dana sasiz jantzitte. Hobeto zaindu biher laukie.







## Mintegia: Industria eta ingurugiroa

### Gaiak:

- Ingurugiro saila enpresan
- Ekoauditoria, ekoetiketa eta merkatu bakarra
- Deliktu ekologikoa eta enpresa
- Euskal industria eta ingurugiroaren desafia

### Hizlariak

- Rafael Sarrikolea
- Carmen Bao
- Miguel A. de la Calle
- Nestor Goikoetxea
- Carlos Alonso
- Jon Bilbao
- J. I. Escala

Sarrera irekia eta doanekoa.



**SAN VIATOR  
IKASTOLA**

### Tokia:

San Viator Ikastola  
(aretoa)

### Egunak:

95-1-16tik 95-1-18ra

### Noiz:

9.30etatik 1etara bitartean

San Viator Ikastola - Arrasate Pasealekua, 10 ARRASATE - ☎: 79 04 11 FAX: 77 00 73

## Alkohola gure bizitzan (II)

Menpekotasun fisikoak, esan nahi du hain dela handia gorputzaren droga eskea, non gaixo sentitzen baita droga hartu ezean. Goizean altxatzen denean, okadak, botagurak, eskuetan dardara, urduritasuna agertzen dira eta trago bat hartu ondoren desagertu egiten dira sintoma horiek eta lasaitu egiten da gaixoa. Abstinentzia sindromea da hori.

Alkoholak sortzen dituen arazoak bi eratakoak dira. Alde batetik arazo psikosozialak, hau da adimen narriadura, errudun sentimendua, ansietatea eta depresioa, nortasun galera, lanean eta familiar arazoak eta bestetik osasun arazoak, hau da, digestio arazoak, gastritisa, zirrosia, pankreatitisa, hipertentsioa, lo-arazoak...

Egunean 75 ml. baino alkohol gehiago edateak sor-

tzen dituen arazoak bi talde-tan sailka daitezke:

1.- Alkohol dependentzia txikia izanik, alkoholarekiko arazoak dituzten edaleak. Hauek gehiegizko edaleak

dira eta populazioaren %20ra iristen dira.

2.- Alkohol dependentzia handia eta alkoholarekiko arazo asko dituzten edaleak. Hauek alkoholikoak dira eta

populazioaren %5a dira.

Normalean 20 urtetik 30 urtera bitartean hasten dira arazoak baina prolema hasi denetik kontsultatzera edo tratamendua hartzera etortzen direnerako 20 urte pasa izaten dira.

Norberak alkoholarekiko arazoa duela onartzea asko kostatzen da. Oso eskuzaballak gara gure buruarekiko, eta edozein aitzakiak balio du gure burua zuritzeko eta ezinbestekoa da zintzo jokatzeara bide onean ibiltzeko.

Horregatik odolaren azterketetan gamma G.T. altua edo lehen aipatutako arazoak, bai psikosozialak bai osasunezkoak somatzen badira, ondo etorriko litzateke alkoholarekiko gure jarra nolakoa den aztertzea.



**EUGENIO ITURRIOTZ  
(MEDIKUA)**

## BULARREKO PATOLOGI UNITATEA

### Mamografia

**Gune susmagarriak aurkitzea.**

**Gune susmagarrien ikuspegi zabalagoak.**

**Bularreko ekografiak.**

**Bularreko tumoreen zitologia.**

**Arrasaten bertan, kanpora joan beharrik gabe, egin ditzakezu bularreko gaitz guztien diagnostiko klinikoak, erradiologikoak, ekografikoak, termografikoak, zitologikoak, laborategikoak, etab.**

# GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA



**DK.ak: CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIENDO, OTALORA, RUIZ.**


**Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18**

## Eski kanpaina aстера doa

Besaide Mendizale elkar-teak jakitera eman digunez, urtarrilaren 21-22ko asteburuan eskiko kanpainari hasiera emango diote. Astebururo Formigalera antolatuko dute bidaia eta bazkideak 9.500 ptaren truke joan ahal izango dira eta bazkide ez direnek 10.000 pta ordaindu beharko dute. Diru kopuru horretan autobusa, hotela eta erre-montek sartzen dira. Udalak ere 165.000 ptako diru laguntza eman dio Besaideri langabezia dauden eta ikasten ari direnentzat bidaia merke-agoa izan dadin. Aste Santu-rako ere Alpeetarako bidaia antolatu du Besaidek. Alpe-etako bidaiaren prezioa 51.000 pta izango da bazki-deentzat eta 52.000 pta bazkide ez direnentzat. Alpeetako bidaiatz eta eski kanpai-naren gainean informazio gehiago nahi izanez gero, eta izenematea egiteko, Besai-deko egoitzara jo beharko duzue, astelehen, astearte eta asteazkenetan, arratsaldeko 6.30etatik 7.30ak arte.

# AUKEA sarien irabazleak

**Aukeratutako** kirolari<sup>en</sup> kirol currikuluma ikusi eta gero, honela banatu dituzte 93-94 denboraldiko sariak: Taldekako saria Urbina Maltzaga saskibaloit talde-ak jaso du. Banakako sari-aren irabazlea Gaizka Arane-gi judoka izan da. Gaizkaki 18 urte ditu eta bere kirol palmaresa benetan bikaina da. Judoko Gipuzkoako txapelketan senior, junior eta jubenil mailan hartu zuen parte 3., lehengo eta lehenengo postuetan sailkatuz; Euskadiko txapelketan junior mailan irabazlea izan zen eta jubeniletan ere lehen postua eskuratu zuen. Estatuko txapelketan ere parte hartutakoa da eta bertan junior eta jubenil mailan 5. geratu zen. Bestalde, Andorran jokatu zen judo txapelketan seniorretan 2. postua lortu zuen eta Bordeleko txapelketan jubenil mailan irabazlea izan zen; bigarren Haritz Arrieta igerilaria geratu da eta Eric Martin karateka egin da hiruga-



Gaizka Aranegi Judoka banakako sarien irabazlea.

rren sariaren jabe. Kirol merituak saritzeko ematen duten plaka Rosa Otxandiano korrikalari ohiak eskuratu du. Sarituak aipatutakoak izan badira ere, aukeratuak beste horrenbeste izan ziren. Maider Murua igerilaria, Isidor Ugarte, Iker Vitoria eta Jose Ignazio Muñoz karatekak eta Ander Mallabiabarrrena saskibaloiko jokalaria. Arrasateko kirolari amateurren lana azpimarratzeko asmoz, duela 5 urte hasi zen AUKEA kirol elkarteak Aukea Sariak banatzen. Dagoeneko, 94ko kirolari

sarituaren izenak eman dira jakitera. Aukeraketa egiteko orduan, ikastetxeetako ordezkaria Marcial Gonzalo, Fernando Larrañaga taldeetako ordezkaria, Juan Jose Uriarte Udaleko ordezkaria eta Fernando Aguriondo kirol teknikaria elkartu ziren herriko komunikabideetako kazetariekin batera.

Sari banaketa otsailean egingo da, Urbina-Maltzaga saskibaloit taldearen partidubaten atsedenean. Hala ere, oraindik ez da zehaztu zein egunetan izango den banaketa.

### EMAITZAK

#### Futbola

**3. maila:** Touring 3 Mondra 0  
**Emakumeak:** Mondra 7 Urretxu 0  
**2. Erregionala:** Betisuztan 1 Mondra 2  
**Jub Ohorezko Liga:** Sporting de Herrera 4 Mondra 1  
**Lehen kadeteak:** Mutriku 1 Arrasate 4  
**2. Kadeteak:** Eibartarra 1 Arrasate 5  
**Infantilak:** Arrasate 2 Idizabal 0  
**Hurrengoak:**  
**3. maila:** Mondra - Elgoibar. Igandea. 3.45etan. Atxabalpe.  
**2. Erregionala:** Mondra - Eibartarra. Igandea. 11.30etan. Atxabalpen.  
**Emakumeak:** Lizardi - Mondra. Igandea. 3.45etan.  
**Jub Ohoz Liga:** Mondra - Elgoibar. Larunbata. 3.45etan. atxabalpen.  
**Jubenilak:** Antzuola - Mondra. Larunbata. 3.45etan.  
**Lehen kadeteak:** Arrasate - Aitzgorri.

Igandea. 9.30etan.  
**2. Kadeteak:** Arrasate - Almen. Larunbata. 11.30etan.  
**Infantilak:** Tolosa - Arrasate. Igandea. 9.30etan.  
**Saskibaloia**  
**EBA Liga:** Askatuak 71 Urbina Maltzaga 89  
**Seniorrak S-23:** At San Sebastian 63 Urbina Maltzaga 73  
**Seniorrak emak:** English Scholl 50 Urbina Maltzaga 53  
**Kadeteak Emak A:** Juven Oleta B 84 Urbina Maltzaga 35  
**Hurrengoak:**  
**EBA Liga:** Forum Valladolid - Urbina Maltzaga  
**Seniorrak S-23:** Urbina Maltzaga - Larramendi. Larunbata. 4etan. Arrasate.  
**Juniorrak B:** S.T Lizaso - Urbina Maltzaga. Larunbata. 11etan. Donostia.

**Seniorrak Emak:** Urbina Maltzaga - Aterpea. Larunbata. 6etan. Arrasate.  
**Kadeteak A:** Urbina Maltzaga - Etxadi. Larunbata. 12etan. Arrasate  
**Kadeteak B:** Urbina Maltzaga - Zarautz. Larunbata. 10etan. Arrasate.  
**Kadeteak Emak A:** Juven Alza - Urbina Maltzaga. Larunbata. 10etan. Donostia.  
**Kadeteak Emak B:** Urbina Maltzaga - Zarautz. Larunbata. 4etan. Arrasate.

Larunbata. 6.30etan. Algorta  
**Arabako territoriala:** Urko - Arrasate. Larunbata. 4.30etan. Abetxuko.

#### Rugby

**Lehen maila:** Arrasate - Hernani. Igandea. 12etan. Garagartzan  
**Emakumeak:** Arrasate - Gaztedi. Igandea. 10.30etan. Garagartza  
**Jubenilak:** Ordizia - Arrasate. Larunbata.

#### Pilota

**Ohorezko liga**  
 Nagusiak eskuz banaka: Mallabia 18 Arrasate 11  
**Paletan:** Altza 35 Arrasate 30  
**Hurrengoak:**  
 Nagusiak eskuz banaka: Alonsotegi - Arrasate. Larunbata

#### Eskubaloia

**Lehen territoriala:** Arrasate - Urola. Igandea. 12etan. Iturripe.

#### Futbitoa

**Lehen maila:** Arrasate 2 Gomar 6  
**Arabako territoriala:** Arrasate 3 Bultzaki 7  
**Hurrengoak:**  
**Lehen maila:** Gaztelueta - Arrasate.

Arreta  
 haundiko  
 sukaldea

**UGARAN**  
 jatetxea

Giro  
 abegikorra

Garagartza auzoa

Tfnoa: 79 76 58

ARRASATE



Niña Mari eguna Ospitale zaharrean.

**Sagasta, Mari Karmen Bergaretxe eta Itziar Villar.**

Bigarren lerroan, **Maria Asun Beitia, Espe Lizarralde, Elena Barrena, Mari Tere Iturbe, Nere Otadui eta Espe Heriz.**

**Maria Angeles Beltrán, Maribel Zubiaga, Mari Tere Sagasta, Feli Salgado, Belen Aranburuzabala, Begoña Lamarain, ezezaguna, Begoña Moraza, Olgita Vitoria, Maria Luisa Agirreurre-**

**ta, Angelines Madina, Arantza Urrutia, Arantza Ortubai, ezezaguna eta Mari Azkarate.**

Hurrengo iladan, monjarengadik hasita, **Sor Zezilia Calonge, Mari Tere Garro, Ana Mari Altuna, Maribi Zumelaga, Dominga Erostarbe, Sor Marianna Porteles, Pilar Barrena, Maria Jesus Azkua, Mari Tere Eriz, Tere Arzamendi, Sor Pilar Espolosin, Begoña Zeziga, Klaudia Agirre, Balen-**

**tina Lete, Carmen Molina, Maria Angeles Okina eta Sor Angeles Lasa.**

Eserita daudenak, **Feli Iriarte, Milagros Otxandiano, Pilar Barrena, Arantza Galdos, Mertxe Trojaola, Ana Mari Zabala, Rosita Agirreurreta, Dolores Amozarrain, Itziar Mujika, Begoña Martiartu, Pilar del Valle, Miren Gorroñoigoitia, Arrate Madinabeitia, Begoña Goitia eta Isabel Altuna.**

**eskatila** talde galanta kalistrotetako eskolan ageri dena. "Niña Maria" eguna edo ospatzen zuten eta horregatik goian ageri den irudia. Goiko lerrotik eta ezkerretik hasita, **Miren Balerdi, Elena**

**Begoña**  
lurrindegia  
Drogeria  
Jostailuak  
Opariak

Gipuzkoa Etorb. 33,  
Musakola Auzoa,  
Tfnoa: 79 03 73

**S. CARRASCAL S.L.**

**Bertan egindako:**

- Sukalde altzariak
- Armairu epotratuak
- Trastelekurako armairuak

**Fabrikan erakusketa**

Gipuzkoa etorbidea, 6-1.a  
Tfnoa /FAX: 79 01 82

**beatriz**

oinetakoak eta  
poltsak

Erdiko kale, 11  
Tfnoa: 79 14 33  
ARRASATE

**ZUBIZARRETA**  
**TAILERRAK**

Gipuzkoa Etorbidea, 22  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 15 65

## Z E R N A H I A G O ?

## Miren Gallastegi

### Zarraoa lurrindegikoa

- Gabonetan zein produktu saldu da gehien? Koloniak.
- Eta gutxien? Jostailuak.
- Zein kolonia eskatu da gehien? "Sculpture" izeneko kolonia.
- Zein da garestiena? "Samsara", 10.000 ptakoa.
- Gizonak etortzen dira opariak erostera? Ez asko.
- "Chanel N°5" ala "Rochas": zein nahiago? "Chanel N°5".
- Zer moduz portatu da 94a zurekin? Normal.
- Gabon Zaharreko mahatsa zein telebistarekin jan zenuen? Ez nuen mahatsik jan.
- Kilorik hartu duzu? Ez, argaldu egin naizela uste dut, turroia ez dut gustoko eta.
- "Urte berria, bizimodu berria": Egia da? Bai, nik aurten etxebizitza estreinatuko dut.
- Ilea tintatzen duzu? Bai.
- Biziorik? Zoritxarrez tabakoa, baina erretzeari uzteko asmoa dut.
- Kartetan jokatzeko duzu? Ez.
- Zer ekarri dizu Olentzerok? Bideo bat.
- Haragia ala arraina? Haragia.
- Abortoaren aldekoa zara? Bai.
- Negu honetan zein kolore eramaten da ezpainenat? Marroia.
- Zebatean behin garbitu behar da ilea? Gutxienez astean behin.
- Betirako amodiorik badago? Agian bai.
- Animalia bazina... zein? Zaldia.
- Dendaria ez bazina, zer izatea gustatuko litzaizuke? Musikatik bizi izatea gustatuko litzaidake.
- Droga bigunak legezkatuko zenituzke? Ez dakit, baditut dudak.
- Zinera joaten zara? Bai.
- Egin duzun azken bidaia? Greziara.
- Esaidazu gezur bat? Erantzun dudan guztia, gezurra da.



## LABURRAK

### "Ekin"eko ikastaroak

AEDko "Ekin" emakume taldeak ikastaro bi antolatatu ditu. Mila Akizuren eskutik, eskulanean ikastaroa maitezera bitartean. Asteartero arratsaldeko 3.30etan hasiko da. Bigarren ikastaroa reflexoterapiari buruzko da. Jose Luis Armendiak, yoga-ko maixuak, emango du AEDn apirilera bitartean asteazkenero arratsaldeko 3.30etan.

### Ikasleentzat antzerki emanaldiak

Udalak antolatuta, Lehen Hezkuntza eta OHoko hasiera, erdi eta goi zikloko ikasleek hainbat antzerki emanaldi ikusiko dute. Antzerki ihardunaldi hauen helburuak, antzokiko instalazioak ezagutu, antzerki-zaletasuna piztu eta ikasleek prestatutako antzerki-obrak antzokian taularatzea dira. Gazteek ikusiko dituzte antzezlanak, Gorakada taldearen "Nahikoa", Taupada taldearen "Zaldi bat, bi kotxe eta 30 ile" eta Ados taldearen "Robinson Crusoe" izango dira.



# LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAZKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55

# Julian Sagasta, organujole eta apaiza

## Organoa eta Mondraue zainetan

**Duela egun gutxi heldu da Julian Arrasatera, David Arzamendiren omenaldian organua jotzeko. 50 urte daramatza Erroman apaiz, baina Arrasate bihotzean daukala dio. Organujole handia da benetan eta bere lagun Daviden omenaldian jotzeak ohorez betetzen du.**



— Zer dela eta Italiara musika ikastera?

— Beno, teologia ikastera bertara joan nintzelako geratu nintzen han. 1933. urtean, 19 urterekin joan nintzen Italiara eta gero, 1937an, Erromako San Giuseppe Basilikan apaiz sartu nintzen. Oraindik han nago apaiz. Bertan teologia ikasketak egiten nengoela, Erromako Santa Cecilia Kontserbatorio Nazionalean musika ikasketak egiten jarraitu nuen, aurretik, Aita Agustinoetan, Oñatin, ikasi bainuen. Santa Cecilia kontserbatorioan Fernando Germani musikoa izan nuen maisu eta han bukatu nuen musika karrera osoa: Organo eta konposizio organistikoan diplomatu nintzen.

— Non jo izan duzu organoa?

— Erromako Santa Maria La Mayor Basilikan organista nagusi sartzeko aukera izan nuen eta bertan hasi nintzen organoa jotzen,

1947tik 1989ra arte. Konpromezu hark Erromatik ez alde egitea eskatzen zidan, beraz, horregatik geratu nintzen han. Orain jubilatuta nago eta ez dut basilika horretan jotzen, baina ohorezko organujole izendatu naute. Bestalde, Italia, Suitza, Alemania, Ingalaterra eta Espainian kontzertuak eman izan ditut eta Batikanoko II. Kontzilioko organista izan naiz, Capilla Sixtinan.

— Nondik datorkizu musikarekiko zaletasuna?

— Ni akordaten naiz umea nintzenean beti joaten

nintzela herriko banda entzuterako plazara. Han egoten nintzen, 4 edo 5 urte nituela, erdiko kalean eserita. Orduan ez zegoen irratirik eta telebistarik eta soina entzuterako herriko plazara joaten nintzen. Gero, 10 urterekin, Oñatiko Agustinoetan sartu eta urtebetean "Solfeo de los Solfeos" ikasi nuen, Fa, Do eta Sol klabeak. Pianoa ikasten hasi nintzen eta 11 urterekin organoa jotzen nuen, musika gregorianoa etabar. Oñatitik Burgosa joan nintzen filosofia ikastera eta bertako parrokan organua jotzen nuen. Maitasun handiz gogo-

ratzen dut Burgos. Burgostik Erromara joan nintzen.

— Gazteek ikasten dute organua jotzen? Badago afiziorik?

— Bai, afizio handia dago. Italian organu-ikasle asko dago, eta oso onak gainera. Cerdeñan ere oso eskola ederra dago eta emakumeek ere ikasten dute organua jotzen. Ez dira asko, baina hor daude.

— Askotan etortzen zara Mondrauera?

— Urtean behin. Nik asko maite dut Mondraue, asko... Nik gorputza eta burua Erroman dauzkat baina bihotza hemen, Mondrauen. Italian nongoa naizen galdeztzen didatenean, "mondrauetarra nok!" erantzuten diet.

— Zer da zuretzat David Arzamendiren omenaldian jotzea?

— Hori bai dela benetako mondrauetarra. Arrasateko kontu guztiak berari esker ezagutzen ditut, askotan idazten dit Erromara eta, oso formala da, oso. Aintzinatik gara lagunak; asko maite dut David, kinta berekoak gara, txikitatik lagun handiak. Duela hilabete bere omenaldian jotzeko eskatuz gutuna idatzi zidan Davidek eta poz handia hartu nuen: derrigor etorri behar nuen bera delako! Nola ez!

*"Gorputza eta burua  
Erroman dauzkat, baina  
bihotza Arrasaten"*

### • ARTEA •

Eskulanak eta lientzoak  
ENMARKAZIOAK

Laminak, Izpiluak,  
Margoak

Ferrerias, 11 Tfnoa: 77 10 95  
ARRASATE

### ARGI PLASTIC

• PVC eta Aluminioan egindako leihoak, ateak, manparak...  
• Lantegitik zure etxera zuzenean

**Eska ezazu aurrekontua  
konpromezu barik**



Tailerra eta Bulegoa: Axeri, 3 Tfnoak: 77 11 30

Altzariak  
Diseinua  
Apainketa

M  
ARENAZA

Bizkai, 1 ARETXABALETA  
Tfnoa: 79 08 07

## Amodiozko Gutunen III. Lehiaketa

Berrigara aldizkariak Amodiozko Gutunen III lehiaketa antolatu du. Lehiaketa horretan partehartzeko ez da beharrezkoa maiteminduta egotea, baina bai jarraiko oinarri hauek betetzea: 1980a baino lehenago jaiotakoa izan behar da; gutunak argitaratugabea eta euskaraz idatzitakoa izan behar du; lanak gutun forma behar du izan eta DIN-A 4 formatoko orriari aurkeztu behar duzu; lanean ez da egilearen daturik jarriko, soilik lema bat; egilearen datuak sobre itxi batean sartuko dira eta sobre horren azalean lanean jarri den lema bera jarri beharko duzu; zure gutuna urtarrilaren 26a baino lehen aurkeztu beharko duzu Jardun Elkartearen, Masterreka 13, behean, 20570, Bergara helbidera.

Sari ematea otsailaren 14an, San Balentin egunean egingo da Gartzela Zaharrean, arratsaldeko 7.30etan.

Sariak "maitagarriak" dira benetan: Ingo saria 75.000 ptakoa; bigarrena 40.000koa eta Bergarar onenarentzako, 25.000 ptako sari berezia egongo da. Lehiaketaren epaimahai literatura eta kultura munduko pertsona ezagunek osatuko dute.

Aukera polita zure bikoiteari aurpegira esaten ausartzen ez zaren kontu hori paperean idatzi eta maiteminduta zaudela adierazteko!



Espainiako Orkestra Nazional Gazteak kontzertua emango du Amaian Edmond Colomer zuzendaritzapean.

## Kontzertu handia igandean

**Arrasate** Musikalek antolatuta, datorren igandean, urtarrilaren 15ean, Espainiako Orkestra Nazional Gazteak kontzertua eskainiko du Edmon Colomeren zuzendaritzapean Amaia Antzokian arratsaldeko 7etan. Orkestrak, Richard Strauss, Frank Martin eta Igor Stravinskyren obrak joko ditu.

### ORKESTRAREN KURRIKULUMA

Kultura Ministeritzako erakunde bat da orkestra hau eta 1983. urtean sortu zen. Bere helburu nagusienetarikoa, espainiar musikariak maila profesionalera pasa baino lehen formazio profesionala aberastea da. Bere ezagupenak aberastu nahian, Espainiako leku desberdinetan Topaketak antolatzen ditu orkestra honek.

Modu honetan prestigio handiko irakasle desberdinekin ikasteko aukera izaten dute. Pasa den urtean orkestraren 10. urteurrena ospatu dutenez, Madrilgo "Festival Mozart'94", Bartzelonako "Palau 100" zikloan eta Cuencako Teatro-Auditorioaren inaugurazioan parte hartu du Espainiako Orkestra Nazional Gazteak. Gainera, Rafael Orozcoren "Noches en los jardines de España" grabazioa ere egin dute. Besteak beste, Belgika, Errusia, Ukraina, Estonia eta Frantzia zehar birak egin ditu musika talde bikain honek. Nazioarteko merkaturuan, Manuel de Fallaren omenezko 3 diska konpaktoduzka kalean orkestrak.

### EDMON COLOMER, ZUZENDARIA

Espainiar orkestra zuzen-

daritzan izen handiko gizona da hau. Espainiako Orkestra Nazional Gaztea zuzentzeaz gain, makina bat orkestra zuzentzen du: Tenerifeko Sinfonika, Cadaques-eko Orkestra, Bartzelonako Sinfonika, London Symphony, English Chamber, Caracaseko Simón Bolívar Sinfonika edo eta Melbourne Symphony musika taldeak, besteak beste. Europa, Australia eta Japongo irratia eta telebista pribatu nahiz publikoentzat grabazioak egin izan ditu eta Harmonia Mundi, Virgin edo eta Philips disketeekin lan egin izan du.

Bazkideek 500 pzta ordaindu beharko dute sarre-ragatik eta bazkide ez direnek 1500. Sarrerak akademian salduko dira urtarrilaren 13ra arte; ostean, Mendi tabernan eta takilan bertan.

**HIES EKIMENA**

Astelehen, astearte  
eta ostiral  
Setatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99

**FELIPE  
MADINA**

**ZURAK**

Zarugalde, 40 ARRASATE  
Tfnoa: 79 13 78

**IBARRA**


**Garajea S.L.**



EBRO  
NISSAN

Garajea  
Automobil-konponketa  
Garabi zerbitzua

Erdiko kale. 79 19 37




Ferrerías. 79 87 62

• AIPUA •

*“Barre egiten baduzu, munduak zurekin batera egingo du; negar berriz, bakarrik egingo duzu”*


WILCOX

• JEROGLIFIKOA •



Ekaitzak... handiak ekarri ditu.

• GURUTZEGRAMA •



J. B. AGORRIA

**Horizontalak** 1. Gizaseme. 8. Txar ez dena. 9. Astar eta behorraren umea. 10. Egiazale. 12. Neskaitila. 14. Aluminioa. 15. Agitu aditzaren infinitibo. 17. Geriatrian espezialista dena. 20. Bete. 21. Gas nobleen taldeko elementu.

**Bertikalak** 1. Juan Jose, San Andreseko parrokoa. 2. Ingalaterrako dena. 3. Amazulo. 4. Katu hitz elkartuetan. 5. Multzoko elementu bakoitza. 6. Mendelevioa. 7. Erlatibitate Orokorren Teoria. 11. Intelligence Service. 13. Haurrak jaten dituen erraldoia. 16. Fleming, “007” sortu zuenaren izena. 18. Musika nota. 19. (Ald.) Nafarroako ibilgailuetan.

• HOROSKOPOA •

**Aries** Urteari zukua atera, eta baita zure bizitzari ere.

**Taurus** Saguei moduan, zuri ere zepoa jarri behar zaizu etxean gera zaitzen.

**Gemini** Orain hasi zara gaboneta-ko postalak idazten?

**Cancer** Belarritakoak belarriak baino handiagoak dituzu.

**Leo** Normalean, zoriontasunak gutxi irauten dizu. Gizajoa!

**Virgo** Neguak ere badu bere alde erromantikoa. Bilatu egin behar.

**Libra** Zure artelanak ulergaitzak izaten direnez, ez duzu ezer saltzen.

**Scorpio** Zure etxean ez da gabon girorik izan. Hurrengoan agian.

**Sagittarius** Lagunekin ituna sinatu baduzu, hori betetzen ahalegindu.

**Capricorn** Inoren etxean agintzea gustatzen zaizu baina zeurean botore gutxitxo ez ote duzun...

**Aquarius** Traje urdina, alkondara zuria, zapata gorriak. Hori da elegantzia!

**Piscis** Absurdia da horrela egotea. Aurrera ala atzera egin.

# LORAMENDI BIROLAK

Beherapenak



## TELEBISTAREN TXOKOA

## Astebete herriko jubilatuekin

**D**atorren asteko "Astebete" saioan, herriko jubilatuek martxora bitartean antolatu duten ekintza-programa ezagutuko dugu. ATBko platora jubilatutako bat etorriko da eta ekintza horien inguruan mintzatuko da Xabier Ibarzabalekin. Aukera polita Arrasateko jubilatutako besoak gurutzatuta ez daudela ikusteko. Ostiralean izango da programa, gaueko 21.30etan.



## KOMIKIA



## PROGRAMAZIOA



## 15 Igandea

21.30etan  
Mondragol: Itxaro Zubillagak aurkeztua.

## 16 Astelehena

20.00, 20.30 eta 21.00etan  
Berriak  
21.30etan  
Mondrasport

## 17 Asteartea

13.30etan  
Mondrasport (errep.)  
20.00, 20.30 eta 21.00etan  
Berriak  
21.30etan  
ATBketan

## 18 Astezkena

13.30etan  
ATBketan (errep.)  
20.00, 20.30 eta 21.00etan  
Berriak  
21.30etan  
Pareak Jokuan. Ion Sarasuak zuzenduta, sindikatu eta langabetuen arteko harremanaren inguruan mahainguru interesgarria.  
22.00etan  
"Zubillagako erromeria" bideo eskainiko da. Amaia Martiartuk egin du bideo-klip hau.

## 19 Osteguna

13.30etan  
Pareak Jokuan (errep.)  
20.30etan  
Berriak  
21.30etan  
Ibilixan Dabilena  
Gonbidatuak: Felipe Uriarte, Alaskan izandakoa. Erreportaia: "Transpirinioak BTTan": 3 lagunek, Ander Balzategik, Ion Agirianok eta Xabier Arriolak, udan bizikletaz egindako ibilaldiari buruzko elkarrizketa ere, ikusgai.  
22.00etan  
"Zubillagako erromeria"

## 20 Ostirala


13.30etan  
Ibilixan Dabilena (errep.)  
19.15etan  
Marrakzi Bizidunak  
19.50etan  
Kukaratxa Motel  
20.30 eta 21.00etan  
Berriak  
21.30etan  
Astebete  
Arrasateko jubilatuek martxora bitartean antolatu dituzten ekintzei buruz mintzatuko da Xabier Ibarzabal hainbat gonbidaturekin batera.  
22.00etan  
Marrakzi Bizidunak

## SOLUZIOAK

**Horizontalak:** 1. Gizakume. 8. On. 9. Mando. 10. Egiati. 12. Neskatu. 14. Al. 15. Agi. 17. Geriatra. 20. Ase. 21. Neon.

**Bertikalak:** 1. Goenaga. 2. Ingeles. 3. Amakoi. 4. Kata. 5. Unitate. 6. Md. 7. EOT. 11. IS. 13. Ogro. Ian. 18. Re. 19. Na

**Jeroglifikoa:**  
Kalte handiak.



EGVZKiGRAF

Grafikagintza. Tipografia.  
Offset industrialia

Aretxabaletako industrialdea, F-0-4 Tfnoa: 79 18 44 - FAX: 79 29 41

- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Liburuskak
- Merkatal inprimakiak
- Bulegoko materiala

**Etxebizitzak**

- **“Pensión Ederra”** alokagai Iturriotz kalean. Tfnoa: 79 12 07. Arratsaldeko Betatik aurrera.
- **Arrasaten etxebizitza osatzeko neska behar dugu.** Hilean 9.500 pta. Tfnoa: 79 70 77. Aintzane.
- **Etxebizitza behar dut alokagai.** 50.000 pta. arte ordaintzeko prest. Tfnoa: 79 44 96.
- **Etxea saltzen da,** Okendo 1 -5.A. Tfnoa: 79 94 36. Arratsaldez deitu.
- **Etxebizitza salgai, Uriburu kalean, 6 - 3.** Tfnoak: 79 80 66 / 77 14 14
- **Nesken etxebizitza batean logela bat alokatzen da,** oso merke. Tfnoa: 77 06 25. (Ainhoa).
- **Apartamendua salgai Erguinen.** Dei egin 79 22 12 tfnora astegunetan gauetan.
- **Nesken etxe batean logela bat** alokatzen da, oso merke. Tfnoa: 77 06 25. Ainhoa.
- **Pisua behar dut alokatzeko Arrasaten.** Tfnoa: 79 73 05.

**Lana**

- **Emakumeak etxeko lanak egin eta umeak zainduko litzuzke.** Tfnoa: 79 31 58.
- **Software neurrira.** Ikastetxeak, akademiak, lanbide liberalak, PYMEak, komertzioak eta tabernak. Tfnoa: 79 54 87. Carlos
- **Gaixo edo/eta adineko pertsonak zaintzen ditut.** Tfnoa: 945-17 07 28. Bautis.
- **Neska euskaldun eta langilea eskaintzen da** astean zehar etxeko lanak egin edo haurrak zaintzeko. Deitu 76 62 60 tfnora eta galdetu Aloñagatik.

- **Etxeko garbitasunak egin, haurrak zaindu edo dendarri lanak** egingo nituzke. Tfnoa: 79 91 30.
- **Magisteritzako ikasleak klase partikularrik ematen ditu.** OHOKo maila guztiak. Dei egin 79 41 37 tfnora 9,30etatik aurrera.
- **Ingeleseko klase partikularrik ematen dira.** Profesionalitatea eta esperientzia zentro akademikoan. Tfnoa: 79 28 98.
- **Neska eskaintzen da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko.** Tfnoa: 79 77 94. M<sup>a</sup> Eugenia.
- **Ileapaindegiko laguntzailea eskaintzen da** FPII eta hobekuntzarekin. Tfnoa: 79 39 15.
- **Emakumea jatxeteetan garbiketa lanak egin eta umeak zaintzeko prest.** Tfnoa: 79 63 27. Nati.
- **Esperientziadun neska arduratsua** eskaintzen da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko, edota pertsona nagusiak zaintzeko, tabernak edo bulegoak garbitzeko... Tfnoa: 79 76 27. Mentxu.
- **Esperientziadun neska arduratsua** eskaintzen da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko, edota pertsona nagusiak zaintzeko, tabernak edo bulegoak garbitzeko... Tfnoa: 79 72 19. Txus.
- **Neska bat behar da** etxeko lanak egin eta umea zaintzeko. Lana goizez izango litzateke. Interesatuak dei egin dezala 1-4ra bitartean 79 67 07 tfnora.
- **Ingeleseko klaseak emango nituzke.** Tfnoa: 79 21 56
- **OHOKo klase partikularrik emango nituzke.** Tfnoa: 79 69 41. Arantxa.
- **Emakumea prest jatxeteak garbitzeko edo umeak zaintzeko.** Tfnoa: 79 63 27. Nati.

**Salerosketak**

- **“FAGHTER”** bateria salgai, chaston eta txapa erritmiko batekin. Ia erabili gabea eta merke. Interesatuak detu 79 65 31 tfnora. (Gaizka).
- **Bigarren eskuko Mountain bikea salgai.** Tfnoa: 79 94 83.
- **Garaje itxia** alokatzen da, Larrea aldean. Tfnoa: 79 69 41. Arantxa.
- **Montesa COTA 335 salgai.** SS-AM matrikula-koa. Tfnoa: 78 24 90. Iñaki.
- **EXPRESS Furgoneta salgai.** 1.400eko motorra eta 75 zaldi. Matrikula SS-AD. Tfnoa: 79 95 83. Iosu.
- **Bigarren eskuko hozkailua behar dut.** Tfnoak: 94-41 11 666 edozein orduan edo 79 90 36 asteleheneetik ostiralera 3.30etatik 7.30etara.
- **Garaje itxia alokagai Roneon.** Tfnoa: 79 19 64.
- **Garajea alokatu nahi nuke,** Arimazurin. Tfnoa: 79 59 68
- **Sofa-oheta saltzen dut.** Neurria: 1,20. Tfnoa: 79 41 26. Ana.

**Denetarik**

- **Egunero Gasteiza joan beharra daukat goizeko 8etarako.** Nahi baduzu nirekin etorri (gastuak erdibana) hor doa nire tfnoa: 79 80 91
- **Zapatu arratsaldean urrezko belarririkoa galdutuz zizaidan,** Loramendi kaletik Uribe auzora bidean. Tfnoa: 79 82 28. Maribel. Arratsaldeko 7etatik aurrera.
- **Gabon egunean ezkontza eraztun bat azaldu da** Ezkina tabernan, inisialekin. Harremantarako, Jose Mari. Tfnoa: 79 61 25.

**Aste Gazte**

**Bekak**

- Euskal Herriko Unibertsitateko ikasleei zuzendutako garraio bekak, Unibertsitatara joateko egunero 25 kilometrotik gora egin behar dutenezat. Epea: urtarrilaren 18.
- “Alexander Von Humbolt” Fundazioak “Wardwell” bekaren deia egin du, musika ikasleei zuzenduta. Epea: apirilak 30.

**Lana**

- Arrasateko Udalak, bi liburuzain laguntzaile kontratatu nahi ditu urte t'erdirako. Izangaien betebeharrak: uni-

bertsitateko erdi mailako titulua edo baliokidearen jabe izatea; euskaraz nahiz gaztelaniaz zereginak betetzeko nahiko ezagupen izatea. Epea: urtarrilak 17.

- Aramaioko Udalak, administrari laguntzaile/liburuzaina lanpostua kaleratu du. Epea: urtarrilak 17

**Ikastaroak**

- Durangoko enplegu eta prestakuntzarako “Sartu” zentruak, langabetuei zuzendutak, dohaineko ikastaro hauek antolatuko ditu. 1) Etxez-etxeko laguntza, 2) Geriatriako laguntzailea. Epea: urtarrilak 31.

- “Familia barruan ekintza hezitzaileen oinarrizko heziketa” ikastaroa antolatu du “Hezkide Eskolak”, giza lanetan ari diren hezitzaileei, suspertzaileei eta begiraleei zuzendutak. Epea: Otsailak 7.

**Eski Kanpaina**

- Eski alpinoa, 15-29 urte bitartekoei zuzendua. Iharduera, eskialeku eta prezio ezberdinak. Erreserbak, Gazte Bulegoan.

**Lehiaketak**

- “Berrigara” Bergarako aldizkariak antolaturik, III. Amodiozko eskutitzen lehiaketa. Epea: urtarrilak 26.

**“Gutako bakoitzak abentura ugari izan genuen gaztaroan; batzuk guztiz ahaztuta ditugu egun, beste batzuk, berriz, erdizka bakarrik”**

**“LES TROIS GRACES”  
MIRCEA ELIADE**



**Informazio gehiago:  
GAZTE ZERBITZUA  
Tfnoa: 77 00 65**



# Arrasateko OSASUN GIDA

## ALBAITARIAK

ALTAMIRA KLINIKA J.L.Iñarra, 24-Behea ..... ☎797489  
ZARUGALDE KLINIKA Zarugalde, 25 behea (24ordutan) ..... ☎791531

## ALERGIA ETA ASMA

ATXEN ARANZABAL Olarte, 43 ..... ☎798100 / 798111

## DENTISTAK

ADUR MEDIKU INSTITUTU ODONTOLOGIKOA Iturriotz 35 ..... ☎799560  
ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz 17,1 Ezk ..... ☎797223  
ARREGI HORTZ KLINIKA zerkaosteta, 19 behea ..... ☎797190  
DENTAL-ZURI (Lagun-Aro, Osakidetza haur programa) Arrasate Pasealekua, 33 ..... ☎770136  
GIPUZKOA ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETAKO ZENTRUA Iturriotz 7 Bis ..... ☎797388  
IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz 7, 1º ..... ☎796945  
LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde, 3 1.-B ..... ☎771263

## DIETETIKA ETA NUTRIZIOA

MARIBI SERRANO Kalealdea, 11- behea ..... ☎796578  
LOREA ARANBURU Drea. BETI-ONA GIMNASIOA Uribarri Etorbidea, 12 ..... ☎770067

## FISIOTERAPEUTAK

ANDONI ETA MARIA BASTERRETXE ERREHABILITAZIO ZENTRUA Olarte 43 Bis ..... ☎770396

## GINEKOLOGOAK

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA Zerkaosteta, 17-Behea ..... ☎792018

## LOGOPEDIA

ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Zurgin Kantoi 3-Esk ..... ☎797946  
PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga 10 ..... ☎794877

## MASAIARIAK

IOSU ARANZABAL Dr. Bañez 10, 1º ..... ☎791818

## MEDIKU-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Analisi klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea ..... ☎794422

## OPTIKA

ARRASATE OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Kontzeziño, 6 ..... ☎792598  
GARAGORRI OPTIKA (Optika eta optometria) Iturriotz 29 ..... ☎791698

## PODOLOGOAK

BARRUTIABENGOA URANGA Pablo Uranga, 6 ..... ☎795075

## PSIKOLOGOAK

NUÑEZ MONREAL Olarte, 10 ..... ☎798816  
PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga 10 ..... ☎794877

## REUMATOLOGIA -BIZKARREZURTERAPIA

GOROSARRI-TROJAOLA Dreak. Zaldibar 1, 1 ..... ☎770040



centro  
hogar  
MUEBLES

**GRUPO**



**Amuebladora  
Mondragonesa**

Sartzen dena:  
zeuk behar dituzun altzariak

**ARRASATEKO BARIANTEAN**